# ttipi-ttapa

TOKIKOM

2017ko otsailaren 9a | XXXVII. urtea | **679**. zenbakia

**erran.eus**




**Bittori JUANIKOTENA** ➜ 50

Errekan ari den Mexikoko triatloilaria


**Gehigarri berezia**
Inauteriak ➜ 25-36

**BERA ➜ 11**
Bertako produktuen merkatua egin nahi dute hilabetean behin

**MINTZAPRAKTIKAK ➜ 24**
Euskalkide egitasmoa Bera eta Elizondoko zahar-etxeetan

**LEITZA/GOIZUETA ➜ 40**
UEMAko tontorrera ailegatu dira Leitza eta Goizuetako Udalak

**BAZTAN ➜ 41**
Udal batzordea sortu dute Aroztegiaren jarraipenerako




**ELKARRIZKETA** ➜ 3

**Xabi URTASUN ERASO** | Musikeneko Goi-Mailako Kontserbatorioko ikasle iruritarra

# «Musikariaren lanbidea exijentea da»

Jende gutik du Musikenen ikasteko aukera baina Xabi Urtasun Eraso iruritar gazteak lortu du. Duela lau urte Pedagogia ikasketak egiten hasi zen eta horiek akituta, orain, organoa ikasten ari da. Ez du garbi etorkizunean non izanen den, baina aitortu digunez, musika jo eta klaseak ematea gustatuko litzaioke. Musikarekiko zaletasuna familiatik datorkiola azaldu dio TTIPI-TTAPAri.

## Diru-bilketa kanpaina abiatu du Bidazi elkarteak ➜ 15

## Osasungintza euskaraz

Osasun-etxeetako mediku, erizain eta pediatren hizkuntza-eskakizunen inguruko azterketa egin du TTIPI-TTAPAk. Lanpostuen %27ak bakarrik du euskarazko hizkuntza-eskakizuna eta gainera, kopuru horri hizkuntza-eskakizuna izan arren, euskaraz komunikatzeko gai ez direnak gehitu behar zaizkio.




**ERREPORTAJEA** ➜ 4-5

ZOZKETAK ➜ 2





Erabili **Ttipi txartela** *probextu aukera!*
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen

## ttipi txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

## ZOZKETAK

**678. aleko irabazleak**

**Lesakako Udal Kiroldegia-2 sarrera**
Paulino Irazoki Manterola | SUNBILLA
**Arkupe gozotegia - Txokolate lote bat**
Mª Jesús Maiora Goñi | ARRAIOZ
**Irrisarriland - 2 sarrera**
Iñaki Etxeberria Hualde | ZUBIETA
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Maixa Barno Erbiti | LEITZA
**Buatxabal - Kamiseta bat**
Santi Urrutia Juanikotena | AMAIUR
**Camelot Park - 2 sarrera**
Marivi Etxeberria Erasun | BERA
**Elkar argitaletxea - Liburu bat**
Mª Luisa Elizainzin Oronoz | OITZ
**Elkar argitaletxea - Liburu bat**
Jose Petrikorena Sagaseta | IRURITA
**Elkar argitaletxea - Liburu bat**
Raimundo Lizardi Tranche | IRUÑEA



LOTE BAT
**MARTIKO**
www.martiko.com




SARRERAK
**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**
www.turismozugarramurdi.com




TIROLINA
**BKZ ABENTURA**
www.navarraabentura.com

GONBIDAPENAK
**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
www.eurekamuseoa.es




KAMISETA BAT
**ONDDO TA PUNTO**
www.onddotapunto.com




2 OTORDU
**MIKELEN BORDA**
www.mikelenborda.com




## LIBURUAK




Aitor Arana
- Avis eta Alba trilogia
Hildakoen eremuan
Espaziotik etorria

ibaizabal
www.ibaizabal.com

## DESKONTUAK %

Burdindegia/Ferretería HERNANDORENA
LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

FOTO MENA
ELIZONDO | %10, kopia digitalean

JUAN J. PICABEA
DONEZTEBE | %10

KATEA BIKE
BERA | %5, konpoketetan

ttipi-ttapa
LESAKA | %10, eskeletan

LEITZAKIROLAK
LEITZA | %5, 30€tik gora

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia da Musikene eta jende guttik du bertan sartzeko aukera. Xabi Urtasun 23 urteko iruritar gazteak, ordea, lortu du eta ez behin bakarrik. Musikenen lau urteko pedagogia ikasketak akituta, eta sarbide proba gogorrak berriz pasatuta, orain organoa ikasten hasi da Musikenen. Musikarako zaletasuna familiatik datorkiola aitortu digu: «familian kanturako afizioa badugu, txistulariak ere badira, abesbatzetan kantatzen dutenak...». Zalantzarik gabe, barreneraino sartua du musika.

**Xabi URTASUN ERASO** | Musikeneko Goi-Mailako Kontserbatorioko ikasle iruritarra

# «Hemen musikari *freelance* moduan ibiltzea ez da bideragarria»

**G. PIKABEA** | IRURITA

**Nolako ibilbidea egin duzu musika munduan?**

Ttikitatik gustatu izan zait musika. 7-8 urterekin Musika Eskolan hasi nintzen eta nire lehen musika-tresna zeharkako txirula izan zen. Gero txistua ere ikasi nuen, eta pianoa urte pare batez. 15-16 urterekin Musika Eskola utzi eta trikitixarekin hasi nintzen, eta 18-19 urte bete bitarte segitu nuen. Garai horretan, trikitixa irakasle ere hasi nintzen Urdazubin. Eta duela bortz urte, Musikenen sartu nintzen. Pedagogiarekin hasi nintzen eta gan den ekainean akitu nuen. Irailean, berriz, organo ikasketak egiten hasi nintzen.

**Guttik dute Musikenen sartzeko aukera...**

Bai, hala da. Ni ere hasieran kimika ikasten hasi nintzen, baina ez zitzaidan gustatu. Argi nuen musika ikasi nahi nuela. Ez nuen uste Musikenen hartuko nindutenik, baina saiatzea erabaki nuen. Pedagogian lau plaza eta organoan bakarra ateratzen dute. Bietan sarrera proben alde teorikoa berdina da: entzumen hezkuntzako froga, harmonia, analisia, musikaren historia eta kultura musikala eskatzen dute. Pedagogian, zehazki, momentuan errandako kanta bat bakarka kantatu behar izan nuen, laukotean ere bai. Pianoarekin saio bat ere egin nuen eta aitzinetik prestatutako froga instrumentala... Eta organoarekin 40-45 minutuz hainbat estilotako obra bat jo, bat-batean irakurtzeko partitura bat... Pedagogiara aurkeztu nintzenean, gogorragoa egin zitzaidan, garai hartan, musika akademikoa alde batera utzia nuelako. Organoa ikasteko probetan, teorikoan hobeki ikusi nuen nire burua, nahiz eta zalantzak izan.



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Xabi Urtasun Etxalarko elizako organoa jotzen.

**Exijentzia maila handia da Musikenen?**

Irakasleek eskatutako mailatik beheiti ezin da egon, baina exijentzia maila norberak eman behar du. Musikariaren lanbidea exijentea da eta bizitza osoan lan egin behar da. Gustuko izan eta lanerako prest egon behar da.

> **IKASKETA GARESTIAK?**
>
> «Garestiak izan beharko lukete, klase unitzetan irakasle bakoitzeko ikasle bakarra izaten delako. Baina Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen ditu eta ia ez dago alderik unibertsitateko bertze ikasketa batekin konparatuz».

> **GUSTUKO MUSIKA**
>
> «Orain, musika klasikoa, garaikidea edo barrokoa jotzen dut. Eta entzun, berriz, flamenkotik hasi eta euskal musikara, judutarra... Ona bada, denetarik entzuten dut».

**Nolakoa da zure egunerokoa?**

Aurten irakasgai aldetik lasaiago nago, pedagogia ikasi izanak irakasgai batzuk baliozkotzen dituelako organo ikasketetan. Organoa jotzen, berriz, nire ikasketa pertsonalerako egunero guttienez lau ordu pasatu beharko nituzke. Horrez gain, taldeko lanak, klaseak, entsaioak... Hortik goiti, bakoitzak nahi eta ahal duena, gorputzak eta buruak aguantatu arte. Gainerakoan, tarteka kontzertuak ateratzen dira, abesbatzaren bati laguntzeko, bakarka jotzeko... Kontent nago.

**Nolako maila dago Euskal Herrian musikaren sorkuntza aldetik?**

Ez da batere txarra, jende aunitz bada estilo ezberdinetako proiektuak ateratzen dituena. Bertzalde, mundu globalizatu honetako musika komertziala da gehien kontsumitzen dena, eta aztertzen hasita, letrak sexistak izateaz gain, musikalki ere ez dute deus ere.

**Zein asmo dituzu etorkizunera begira?**

Ez dakit hemendik lau urtera nola egonen naizen, baina normalean, Musikenen ibilitakoek master bat egiten dute Europako bertze kontserbatorioren batean. Euskal Herrian etorkizuna zaila da, eta estatu espainiarrean oraindik okerragoa. Europa mailan musika klasikorako kultura handiagoa dago. Alemanian eta Herbehereetan, adibidez, gazteendako hemen baino aisa laguntza eta kontzertu gehiago daude. Hemen, gazteen artean estereotipo eta klixe aunitz daude eta aunitzetan, lehendabiziko aldiz joatea kosta egiten zaigu.

**Irakaskuntzan ariko zinateke?**

Bai. Hemen musikari *freelance* moduan ibiltzea ez da bideragarria. Akaso bertze herrialderen batean bai, baina hemen ez. Hortaz aparte, irakaskuntza gustukoa dut. Musika jo eta klaseak ematea gustatuko litzaidake.

**GIZARTEA** ➔ EUSKARA OSASUNBIDEAN

# Osasun zerbitzua euskaraz?

## Eskualdeko osasun-etxeetako 74 lanpostutatik 20k dute euskarazko hizkuntza-eskakizuna

Osasun-zerbitzu publikoan euskaraz aritu eta euskaraz artatuak izateko eskubidea aitortzen du Nafarroako Euskararen Legeak. Baina nola bermatu hori lanpostuek ez badute euskarazko hizkuntza eskakizunik? Eta eskakizuna duten postuetan langileak ez badira euskaraz ari? Herritarren eta Euskara Zerbitzuetako teknikarien laguntzarekin osatu du TTIPI-TTAPAk osasun-etxeetako egoeraren erradiografia eta lortutako diagnostikoak argi-ilunak ditu.

**Hizkuntza-eskakizuna izan arren, asko ez dira hartu-emana euskaraz egiteko gai. Lanpostuak hizkuntza-eskakizunik ez izan arren profesionalak euskaldunak dira batzuetan.**

**Eneritz IRAOLA**

Osasun-etxera joan eta pediatra, mediku edo erizainarekin euskaraz aritzeko modurik ez izatea salatu dute behin baino gehiagotan eskualdeko herritarrek. Azken agerraldi jendetsua 2014an egin zuten Leitzaldeko eta Bortzietako herritarrek pediatra euskalduna izateko eskatuz. 171 eskaera bildu zituzten Leitzaldean eta 518 Bortzirietan. Bi urteren ondotik, egoerak bere horretan dihardu. Lanpostuari ez zaio euskarazko hizkuntza-eskakizuna ezarri eta langileak ez du euskara ikasteko pausua eman. Horrela, salatzen dutenez «gurasook pediatraren eta seme-alaben artean itzultzaile lanetan aritu behar izaten dugu».

### DESOREKA AGERIAN

Nafarroako gobernuak eskualdez eskualde kokatzen ditu sendagile euskaldunak, hala ere, euskara meritua da gehienetan eta ez nahitaez bete beharreko baldintza. Eskualdeko herri aunitzetan biztanleriaren %75-80tik gora euskalduna izanik, osasun-etxeetako lanpostuen %27ak bakarrik du euskarazko hizkuntza-eskakizuna. Eta zaila da hizkuntza eskubideak bermatzea ehuneko horrekin. Kopuru txiki horri gehitu behar zaizkio lanpostuak hizkuntza-eskakizuna izan arren euskaraz komunikatzeko gai ez diren langileak. Ez baita gauza bera zenbat lanpostuk duten hizkuntza perfila ezarrita eta dauden langileen artean zenbat diren euskaldunak.

Batzuk, hizkuntza-eskakizuna izan arren, ez dira euskaraz egiteko gai. Besteak, berriz, hizkuntza-eskakizunik ez dute baina euskaldunak dira. Egoera sozilinguistikoa eta hizkuntza-eskakizuna duten plaza kopurua ez datoz bat. Baztanen adibidez, 34 dira osasun-etxean lanean ari diren mediku, pediatra eta erizainak eta horietatik 21 dira euskaldunak. Langile gehienak euskaldunak izanik, zerbitzua euskaraz eskaintzen da gaur egun baina egoerak ez du bermerik, lanpostu horretan ari den euskaldunak lanpostua utziko balu, ordezkoak ez lukeelako zertan euskalduna izan.

**MEDIKUAK**

«31 lanpostutatik 9k dute hizkuntza eskakizuna. Langileen erdia baino gehiago da euskalduna».

**ERIZAINAK**

«Eskualdeko erizainen laurdenari (9ri) eskatzen zaio euskararen lehen mailako ezagutza. 38 lanpostu daude».

**PEDIATRAK**

«Leitza eta Baztango pediatrek ez dute euskarazko hizkuntza eskakizunik. Langileak erdaldunak dira bi kasuetan».







### ETORKIZUNA?

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa osatzen ari da Nafarroako Gobernua eta euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko pausoak iragarri dituzte. Osasun-zerbitzuetan eragin zuzena izanen luke: administrazioan euskara erabiltzeari buruzko dekretua aldatu, lanpostuetan zenbait moldaketa egin eta langile erdaldunei ikastaroak eskaintzea aurreikusten dute. Denborak esango du zer kolore hartzen duen guztiak.

## MALERREKA

### Hizkuntza-eskakizuna duten batzuk gaitasunik ez, eta gaitasuna duenak eskakizunik ez

| Lanpostua | Langileak | Hizkuntza eskakiz. |
|---|---|---|
| Medikua | 4 | 2 |
| Pediatra | 1 | 1 |
| Erizaina | 9 | 2 |

Doneztebeko Osasun-Etxean eskaintzen da Malerreka osoko osasun zerbitzua. Lau mediku ari dira lanean eta herrika banatuak dituzte euren zereginak. Lau lanpostuetatik bik dute euskarazko hizkuntza eskakizuna baina errealitatea nahasi xamarra da. Sunbilla eta Bertizaranako herritarrak artatzen dituen medikuak ez du hizkuntza-eskakizunik eta erdalduna da. Ituren, Zubieta, Eratsun eta Ezkurrako medikuak euskaraz ulertzen du baina ez du lanpostuari eskatzen zaion maila betetzen. Doneztebe eta Elgorriagakoak berriz, badu euskara maila bere lanpostuak eskakizunik ez duen arren. Donamaria, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien eta Saldiasko mediku plazak ezarria du euskara eskakizuna eta medikua euskaraz ongi moldatzeaz gain, jarrera positiboa erakusten du euskararekiko.

Erizainen erdia baino gehiago euskalduna den arren, bi lanposturi ezarri diote euskarazko hizkuntza eskakizuna.

Pediatrari euskarazko hizkuntza maila eskatzen zaio eta plaza betetzen duen pertsonak baldintzak betetzen dituen arren, orain bajan dago eta ordezkoak ez daki euskaraz.

## LEITZA/GOIZUETA

### Mediku eta erizainen gehiengoa euskalduna da baina pediatra erdalduna

| Lanpostua | Langileak | Hizkuntza eskakiz. |
|---|---|---|
| Medikua | 5 | 2 |
| Pediatra | 1 | 0 |
| Erizaina | 4 | 2 |

Leitzaldeko herritarren osasun arreta, Leitza eta Goizuetako osasun-etxeetan banatzen da. Pediatra bakarra dute guztiek; ez du hizkuntza-eskakizunik eta erdalduna da.

Leitzako osasun-etxean ari diren medikuetatik bi euskaldunak dira eta baita beraiekin batera ari diren hiru erizain eta praktiketan ari den beste bat ere. Guardiak egiteaz arduratzen diren medikuen artean, ordea, batek ez daki euskaraz eta besteak bai. Guardiak egiteaz arduratzen diren erizainen artean, bakarra da euskalduna.

Goizuetako osasun-etxean zerbitzua euskaraz eskaintzen dute. Medikua euskaldun osoa da eta lanean txandaka ari diren hiru erizainak ere euskaldunak dira.

## BAZTAN

### Hizkuntza eskakizuna lau lanposturi baino ez diete ezarri

| Lanpostua | Langileak | Hizkuntza eskakiz. |
|---|---|---|
| Medikua | 15 | 2 |
| Pediatra | 2 | 0 |
| Erizaina | 17 | 2 |

Euskararen alde egin du balantzak Baztango Osasun-Etxean. Hizkuntza perfila duten lanpostuak guti izan arren, euskalduna baita langileen gehiengoa. Zehazki, 15 familia mediku ari dira lanean eta horietatik 9 dira euskaldunak. Erizainak berriz, 17 dira eta 12 dira euskaldunak. Nabarmentzekoa da bi pediatrak erdaldunak izatea, ez dute hizkuntza eskakizunik.

## ZUGARRAMURDI

### Zerbitzua euskaraz, plazak perfilatuak ez dauden arren

| Lanpostua | Langileak | Hizkuntza eskakiz. |
|---|---|---|
| Medikua | 1 | 0 |
| Erizaina | 1 | 0 |

Zugarramurdi eta Urdazubiko herritarrak artatzen dituzte, Zugarramurdiko osasun-etxean eta medikua eta erizaina euskaldunak dira. Hala ere, plazak ez daude perfilatuak.

## BORTZIRIAK

### Hizkuntza-eskakizuna ofizialki bete arren, batzuk ez dira zerbitzua euskaraz emateko gai

| Lanpostua | Langileak | Hizkuntza eskakiz. |
|---|---|---|
| Medikua | 6 | 3 |
| Pediatra | 1 | 1 |
| Erizaina | 7 | 3 |

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako herritarrek Lesakako osasun-etxera jotzen dute. Bertan, 6 medikuetatik bi dira euskaldun osoak. 2016ra arte bi medikuk zuten eskakizuna. Orduan Berako osasun zerbitzuaz arduratzen diren bi medikuetako bati hizkuntza-eskakizuna ezarri zioten. Lanpostu horretan ari den medikuak ulertzen du eta gai da oinarrizko komunikaziorako eta egun eskatutako maila ez duen arren, ikasten ari da. Beste medikuetako bat, oinarrizko komunikaziorako eta ulermenerako gai da, baina lanean euskaraz aritzeko gai ez.

Bestalde, zenbait lanpostuk hizkuntza-eskakizuna izan arren, plaza hori betetzen duen titularra ez dela euskaraz hitz egiteko gai salatu dute erabiltzaileek. Bortzirietako herri guztietako haurrak artatzen dituen pediatraren kasua da hau. Haurrekin esaldi solteak hitz egiteko gai da eta jarrera ona du baina bere lanean euskaraz hitz egiteko gai ez direnen kategorian sartzen da.

***Hizkuntza-eskakizuna=** Lanpostu jakin batean euskaraz aritzeko ezinbestekoa den euskara maila da, ahozkoa zein idatzizkoa.

**LARRIALDI ZERBITZUAK**

### Gehiengoak ez du hizkuntza eskakizunik

2016 urtera arte, eskualdeko larrialdi zerbitzuetako lanpostu bakar batek ere ez zuen ezarria euskarazko hizkuntza-eskakizuna. Horregatik ordura arte meritu bezala kontuan izan arren, larrialdi zerbitzuetako mediku eta erizainek ez zuten zertan euskaldunak izan. Maiatzaren 25ean Nafarroako Gobernuak onartutako 35/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, Bortzirietan larrialdietan arituko diren bi medikuri ezarri zaie hizkuntza-eskakizuna eta Elizondoko osasun-etxeko mediku bati. Bortzirietan, hizkuntza-eskakizuna ezarria badago ere, hiruetako bakar bat ere ez da euskaraz moldatzen. Malerreka eta Leitzan berriz, hizkuntza eskakizunik ez izan arren, larrialdietako erizain eta medikuen erdiak baino gehiago euskaldunak dira.

**ORDEZKAPENAK**

### 'Zorte' kontua gehienetan

Egoera okertu egiten da nabarmen hainbat momentutan, zerbitzuen berrantolaketak edota langileen ordezkapenak euskara kontuan hartu gabe egiten baitira aunitzetan.

Gainera, lanpostuetako askok euskarazko hizkuntza-eskakizunik ez dutenez, egungo titularra euskalduna izateak ez du erran nahi ordezko baten beharra dagonean hura euskalduna izanen denik, legez ere ez baitu hala izan beharrik.

Bestalde, orain arte euskara ikasten ibili diren funtzionarioek euren lanean izan duten hizkuntza erabileraren inguruko jarraipenik ere ez da egin, ezta gaiaren inguruko inolako kontrolik ere. Finean, ehunka pertsona euskaldundu dira, baina lanpostuak ez.



**Nire txanda**
Koro IRAZOKI

# Dirua behar denean

Proiektu bat martxan eman nahi duzu, baina ez duzu diru nahikorik. Zer egin? Seguraski banketxe batera joko duzu, baina jakinik gero, diru hori itzultzerakoan, zati koxkor bat gehiago ere itzuli beharko duzula… ez-ez… bertze zerbait bilatu behar duzu... Ah kontxo!, zaude trankil, bertze aukera bat ere bai baituzu. Hara hemen zer egin dezakezun: izen ezin arraroago eta zaila duen *crowfounding* bat martxan eman! Modu honetan, partikularrek zure proiektuan parte hartuko dute, behar duzun diruaren zatitxoak eskainiz. Eta orain erranen duzu: «baina gero diru hori itzuli beharko diet...». Ba ez, ez da dirurik itzuli behar. Jendeak zure proiektua gustukua duelako laguntzen du, bertzerik ez. Hala ere, ez pentsa, crowfounding batek lan pulita egitea eskatzen du: zure proiektua ahal bezain ongi aurkeztu behar diozu gizarteari, finantziazioak merezi duela ikustarazteko.
Zer, konbentzitu zaitut edo oraindik ez nauzu sinesten? Hurbilagotik ezagutu nahi baduzu, eskualdean crowfounding bat martxan emana du Bidazi elkarteak. Sar zaitez: *http://goteo.cc/bidazi*,eta ezagutuko duzu. Eta bidenabar diruz laguntzen baduzu, mila esker!

**Ezpala**
Aitor AROTZENA

# Hala bazan eta ez bazan…

Lur jabe handi bat kexu zen, ondoko baserriko baratzean ereindako kalabazak bere lorategi dotore eta txukunean ateratzen zirelako. Horma handi bat eraiki zuen, baina sustraiak pareta azpitik igaro eta kalabazak ateratzen segitu zuten, txoriek eramandako kalabaza-haziak ere loratzen hasi ziren lorategi apainean… eta okerrena, aurpegia ere kalabaza kolorekoa jarri zitzaion lur jabeari.

## Nabarmentzekoak



Xanti UTERGA
Erremontelari erregularrena

Oriamendi 2010 enpresak antolatutako Erremontearen Galan, joan den urteko erremontelari erregularrenaren saria jaso zuen doneztebarrak. 40tik 33'86 puntu eskuratu ditu.



Santi SAN MIGEL
Duatloian beterano onena

Euskal Herriko Duatloi zirkuituan beteranorik onena izan da Erreka Tri taldeko kirolaria. Sei probetatik hiru irabazi zituen bere kategorian. Kategoria absolutuan ere laugarren izan zen.



Jon ABRIL
'Neskatoak' Sobrarbera

Sobrarbeko (Huesca) *Espiello* etnografia-dokumentaleko zinemaldirako hautatu dute beratarraren 'Neskatoak'. Jaialdira aurkeztutako 400 lanen artetik 23 aukeratuetan dago.

**Atzera begira ➜ 2007-II-1** TTIPI-TTAPA 439 zk.



## Julen San Miguel eta Koteto Ezkurra binakako txapeldun

Donezteben erremontea modu berezian bizi dela jakina da. Eta duela hamar urte ospakizunerako aukera bikaina izan zuten, Koteto Ezkurrak eta Julen San Miguelek binakako txapelketa irabazi baitzuten. Finalean, 40-24 irabazi zieten Altuna I eta Migel Mari Urrutia saldiastarrari. 19 urte bertzerik ez zituen San Miguelek eta bere lehen txapela izan zen: «Kotetorekin jokatzea beti abantaila da, eta nik nahiko lasai jokatu dut txapelketa guzia» zioen gazteak. Beteranoak, berriz, eskarmentuarekin honela aipatu zigun: «Txapelak irabaztea ongi dago, palmaresa ere garrantzitsua da, baina urte osoan maila mantendu behar da».

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • **info@ttipi.eus**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

CC BY SA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

**2017ko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 36€ |
| Leitza | 22€ |
| Hego Euskal Herria | 42€ |
| Ipar Euskal Herria , Europa | 75€ |
| Amerika eta Australia | 130€ |

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mecna

Kolaborazioak

# Historiak eta mitoak

Esteban IRUSTA MALLEA

Denok historia zaleak gara. Baita legenda zaleak ere. Zaletasun horren azpian bizitza luzatu nahia dagoela, dirudi. Gure bizitzako urteak laburregiak dira bizitzeko gogoarekin neurtuz. Historiak eta, batez ere, leiendak bizitza luzatu egiten dutela esan dezakegu. Gizakiaren imajinazioa, amets egiteko ahalmena neurrigabekoa da. Historiak eta leiendak bereiztea, ez da samurra. Historia asko leiendatzat hartzen ditugu, eta leienda asko historiatzat. Gehienetan, bakoitzaren ideiekin bat etortzen dena sinisteko ez dugu arazorik izaten, nahiz eta leienda itxura garbia eduki. Eta alderantziz, historia izateko osagai garbiak eduki arren, leiendatzat hartzen ditugu, geure ideiekin bat ez baldin badatoz. Gai honetan, politikak eragin handia dauka. Agintariek eta politikariek bere erara azaltzen dituzte gertaerak, nahiz eta jakin ez direla egia esaten ari. Baina egiaren gainetik beste interes, beraientzat garrantzitsuagoak defendatzeko beharturik daude. Lehenengo, helburu politiko batzuk jartzen dituzte, beraien ustez,eztabaidatu ezin direnak. Horretarako, helburu horiek defendatzeko aukeratu dituzte. Baina arazoa ez da mundu horretara mugatzen. Idazle, kazetari, berriemaile, esatari eta komunikabideetan zerikusi duten guztiek gehitu behar zaizkie. Alde batetik botere handia dutenen menpean lan egiten dutenak daude. Hauek jabearen interesak defendatu behear dituzte. Ez dira aske, libre, bere benetako ideiak azaltzeko. Eta egoera horretan daudenez gehienak, benetako egia jakitea, ia ezinezkoa gertatzen zaigu. Geure denboran, geure inguruan bizi izan dugun historiaren kontaketa oso desberdina da idazle bakoitzaren arabera. Espainiako idazleak, luxuzko edizioetan, hemen bizi garenok ezagutu ez ditugun gertaeren kontaketa egiten ari dira ETA dela eta. Nire lagun batek esaten dit, Espainiako bere lagun batzuk ezin zutela ulertu nola bizi zen hain herri arriskutsu batean. Orain ez dago horrelako historiarik, baina Euskal Herriko historia beltz hori historia liburuetan azaltzen da, eta horrela azalduko da idatzita *in sekula sekulorun*.

Eguneroko bizitzan, gertaera berdinen kontaketa desberdinak egiten ditugu. Eta denboran atzera egiten badugu, eta Antzin Arora edo Erdi Arora salto egiten badugu, garai hartako historiak nola iritsi, ailegatu diren guganaino, zer pentsa ematen du, gure irudimenak duen ahalmena kontuan hartzen badugu. Mitoak eta ipuinak sortzeko zaletasuna handia daukagu, eta tartean historiatzat, egiatzat hartzeko tentaldia ez txikiagoa. Batzuk, zalantzarik gabe, dibertitzeko helburu besterik ez daukate. Euskal Herrian daukagu honelako adibidea, gaur egun, pertsonaia hain ezaguna den Olentzero. Honen kasua berezia da. Orain 50 urte, gure artean guztiz ezezaguna zen, Lesakan eta inguruko herrietan izan ezik. Eta urte gutxitan, ezezaguna izatetik, guztiz ezaguna izatera pasatu da. Ezaguna bakarrik ez; bere izaerak ere, aldaketa berezia izan du herritarren aldetik. Ikazkin pobrea, barregarria, tripaundia, zurrutero, neurrigabeko jatuna izatetik, opari ugariren emaile izatera bilakatu da. Pertsonaje mitikoa izateak, honelako zentzugabekeriak ere onartzea dakar.

# Katixa eta hostoa

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Behin batean, udazkenean, Katixa oso haserre atera zen etxetik, amatxok errieta handia egin ziolako, gaizki portatu eta gero. Zigor moduan, amatxok etxe ondoko denda batera bidali zuen, mandatu bat egitera; ogia erosi behar zuen.

Baina, etxeko ataritik atera bezain laster, baratze ondoan pasatzen ari zen bitartean, bat-batean sagarrondo baten hosto bat sumatu zuen buru gainean. Gora begiratu, eta, sagarrondoaren urte hartako azken hostoa zela konturatu zen. Orduan bertan eta dendarako bidean, bera ohartu gabe, pentsatzen hasi zen a zer-nolako kointzidentzia handia gertatu zen momentu horretan.

Izan ere, Katixak bere logelatik egunero ikusten zuen sagarrondoan gertatu zena gertatzeko, gauza askok kointziditu behar zuten, sinkronizazio ugarik bat egin behar zuten, alegia, hosto hori noiz jaio, zenbat hazi, noiz heldu, noiz zahartu, noiz egon erortzeko zorian, behar zuen azken haize boladak noiz jo, Katixak berak une zehatz horretantxe bertan igaro behar izatea, eta abar, eta abar. Katixak ez, ez zuen asko pentsatuko halakorik gertatuko zitzaiola. Dendara sartu eta saltzaileak ogia prestatzen zion bitartean ere, kontu horiek ari zen hausnartzen bera batere ohartu gabe, hau da, azken haizeboladatxo hura pixka bat aurreratu edo atzeratu izan balitz, ez zatekeen gertatuko gertatutakoa, edota amatxok errietarik egin ez eta okindegira bidali izan ez balu, edo pixka bat arinago edo motelago ibili izan balitz, edo une horretan makurtu izan balitz, edota hostoa lehentxeago edo geroxeago jaio izan balitz, eta abar, eta abar.

> «Une horretarako, konturatua zegoen zenbat gauza gertatu ahal zaizkigun kointzidentzia hutsez, baina, aldi berean, kointzidentzia eta batera gertatze hauek guztiek beren arrazoi, zergatikoa eta zioa zutela»

Ordurako, lehentxeago amatxorekin izandako haserrealdia, ahazten hasita zegoen. Behin ogia erosirik, saltokitik atera eta etxe aldera abiatu zen pozik eta alai. Une horretarako, konturatuta zegoen zenbat gauza gertatu ahal zaizkigun kointzidentzia hutsez, baina, aldi berean, kointzidentzia eta batera gertatze haiek guztiek beren arrazoi, zergatiko eta zioa zutela.

Baratze parean, sagarrondoari begira eta irribarre konplize bat egin zion. Etxera pozak txoratzen sartu, ogia mahai gainean utzi, eta, amari musu luze eta goxo bat eman ondoren, zera esan zion: «eskerrik asko, amatxo, dendara, ogi bila bidali izanagatik, asko ikasi baitut!».

## Irakurleak mintzo

# Goizuetako sutean kaltetutako familien gutuna, eskerrak emateko

Oihana LUJANBIO BEGIRISTAIN, Maio eta eta Maritxoko familien izenean

Ikari galanta hartu genuen denok urtarrilaren 14an. Elurraren inguruko alertak zebiltzan nonahi, baina arrunt bestelako berriak izan genituen larunbat beltz hartan.

Askotan ahazten zaigu gizakioi zein indartsua den natura; suak erakutsi du oraingoan bere ahala. Ura ere ikus daiteke gure inguruetan kalteak eginez. Orduko- an, ordea, sua itzaltzen lagun izan zen.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu urtarrilaren 14ko sutean eta ondoren laguntza eta babesa eskaini diguten guziei: herriko bolondresei, suhiltzaileei, herritarrei eta Goizueta, Leitza eta Aranoko Udalei. Egun hotz hartan nahiz ondoren etorri diren izotzaldietan, babes goxoa izan dira.

Gure historiarekin lotuak dauden etxeak kaltetuak gelditu dira, eta lana egongo da konpontzen, baina inork ez du minik hartu eta pozik gaude horrekin. Oso kontuan hartzekoa da.

Jasotako laguntzak horretan ere lagundu duela uste dugu. Bihotzez, milesker!



## Bota bertsoa

Julen ZELAIETA IRIARTE (Bera) • Doinua: ETAren su etenetik

Iruñeko Udalaren Bertsopaper lehiaketan 2. saria (42 bertsoko xortatik aukeraketa)

### 167_1937; isiltasunak itxi arazi zuen auzoa

15) –*Hogeita hamaseia zen,*
*Gerra Zibilean jada.*
*Beraz, ia pasatu dira*
*zazpi-zortzi hamarkada.*
*Ni oraindik haurra nintzen;*
*zazpi urte, behar bada*
*Legarreako afera,*
*orduko gertaera da.*
*Zazpi lagun hil ta bota*
*omen zituzten bertara,*
– Ustez, Legarrean dauden
sei horiek nor dira ba?
*– Juana Josefa Goñi ta*
*bere sei seme alaba.*(ber)

16)-Sagardia Goñitarrak
nor ziren nahi nuke jakin:
*– Pedro ta Juana Josefa*
*zortzi seme alabekin..*
*Haurrak sortzen joan ziren*
*ta mantentzeari ekin.*
*Seme bat umetan hil zen*
*urte gutti batzurekin.*
*Pedro Ikazkin lanetan*
*zen urte haietan, Eugin.*
*Josefak umeak zaintzen*
*bazuen nahiko zeregin...*
*are gehiago, orduan,*
*tripan zeramanarekin.* (ber)

17)-Bederatzigarren haurra
jaiotzear zen orduan?
*– bai, ta jaioko omen zen*
*bi hilabeteren buruan.*
– ta neska polita al zen?
hau ia, detaile moduan,..
*– Hori baiezta dezaket*
*hagitz modu seguruan!:*
*Altua, begi ederrak,*
*ile horia buruan...;*
*Juana Josefa ondora*
*ekartzeko helburuan,*
*gaztetan, senargai faltik*
*ez zen bere inguruan.* (ber)

18) –Nor zen Pedro Sagardia?
*– ba, Josefaren Senarra;*
*Ezkondu ta Gaztelura*
*inguratu zen Oiztarra.*
*Nahiz ta pasa gerrarako*
*gehiengo adinaren marra,*
*Errekete(e)tan sartzeko*
*sentitu zuen beharra.*
*Frankoren alde aritu zen;*
*itxuraz ez zen koldarra,*
*baina familia utzi*
*zuen baztertu xamarra;*
*Gizon ausarta bai, baina*
*aita eta senar txarra!* (ber)

19) – *Arretxean bizi ziren,...*
*han, atzean dagoena.*
– Arretxeatarrak beraz?
*– Bai baina ez zen haiena;*
*Etxeko nagusia zen*
*Doneztebeko Taberna.*
*Merkataria zen bera,..*
*ez dut gogoan izena.*
– Familia bat, haurrekin,
bertan maizter bizi zena,..
kanpotik begiratuta
nahiko ohikoa da dena.
orduan zer zen herrian
beraien kontra zutena?(ber)

20) –*Eliza ondoan zuten*
*baina hagitz fede eskasa.*
*Pedrori hartzen zioten*
*zelatariaren traza.*
*Antza, ebasten aritzen*
*omen ziren euren kasa;*
*oilo, arraultze, letxuga*
*tomate zein kalabaza...*
– Gosea ase behar ta...
ez zen izango erraza!
*– Bai baina ebaste hori*
*orduan ez zen jolasa;*
*ai! garai zail haietan nork*
*ez zuen goserik pasa?* (ber)

21) – *Gazteluarrak haserre*
*zebiltzan hilabeteetan,*
*ebasketen egileak*
*beraiek ziren ustetan.*
*Pedro Eugin zen; urruti,*
*bere ikazkin lanetan.*
*Seme za(ha)rrena Baztanen.*
*Bertzeak, Gaztelun bertan.*
*Ez zituzten herrian nahi*
*ezta ere Malerrekan,*
*Beraz botatzeko asmoz,*
*abuztu erdiko bueltan,*
*bildu, ta herri batzarra*
*egin zen bi egunetan.* (ber)

22) – Bi eguneko batzarra?
baina hori zertarako?
*– Ba, erran dizut; herritik*
*bota nahi zituztelako!*
– baina botatzea ere..
ez zen horrenbertzerako!
*– hala erabaki zen ba,*
*ta hura bete beharko!.*
*Senarra Eugin, lanean,*
*zegoen herritik kanpo,*
*ta Josefak abisua*
*pasatu nahi ziolako,*
*bi egun bakarrik eman*
*zizkioten hortarako.* (ber)

23) –*Pedrok jakin zuenean,*
*bueltan etorri zen hegan.*
*(batzutan pentsatzen zuen*
*bere familiarengan)*
*Sinesten zuen, afera*
*moldatzeareen aukeran.*
*Baina herriak ez zion*
*sartzeko aukerarik eman.*
*Herritarrek zaintzak egin*
*zituzten herri sarreran.*
*Pedro iritsi zenean,*
*pentsatua zuten eran,*
*hartu eta sartu zuten*
*Doneztebeko ziegan.* (ber)

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Prentsatik bildutakoak



«Joan direnez oroitzea aspaldiko eta hagitz zabaldutako ohitura da mundu osoan, eta oroitze horren zenbait seinale mantentzea ere bai. Horrela, gure aitzinekoak gogoratzean, gure historia dakarkigu gogora, haiek izan eta egindakoa baita gure izaeraren zatia. Hilarriek ere ikusarazten ahal digute horren zerbait, eta badute horregatik garrantzia».

**Pello APEZETXEA**
Etxalarko apeza
D.Noticias 2017.01.24

«1987an biltegiko zolan egindako lan batzuek, lehen kanpoan egondako 75 harri ikusi eta eskuratzeko aukera eman baitzuten, eta gaur egun lorategian dauden bezala paratzea, herritar eta kanpotar aunitzen gozamenerako». «Bertze zerbait idaztea badut buruan, baina neretzat zaila eta nekagarria da. Beharbada norbaiten laguntzarekin…».

**Pello APEZETXEA**
Etxalarko apeza
D.Noticias 2017.01.24

## 11 galdera labur

**Nor dugu Jabier Iturbide?**
Etxalarko elementu bat, inauteriak gustuko dituena.

**Denbora librea duzunean zer egitea gustatzen zaizu?**
Ez dut aunitzik izaten... Fabrikan lanean ari naiz, baserria ere badugu, zerri hiltzen ere aritzen naiz... Denbora baldin badut andrearekin paseatzera, edo haurrekin... Baina ez gara aski ailegatzen.

**Inauterietan urtero mozorrotzen omen zara...**
Bai, beti. Urte batean ez nintzen atera baina eri nengoelako.

**Nola pasatzen dituzu inauteriak?**
Gustura. Astelehenetan etxean eta asteartean zerbait prestatu eta kanpora...

**Orain arte egin duzun mozorrorik gustukoena?**
Papa-mobila egin genuenekoa. *Koxme* eta biak atera ginen eta gustura ibili ginen. Saltsa gustatzen zaigu.

**Inauteriak ala bestak nahiago?**
Inauteriak. Aunitz gustatzen zaizkit. Baserriz-baserri ere sei urte egin nituen gazteak traktorearekin ibiltzen. Eta asteartearekin bakarrik ala kuadrillan ateratzen naiz, egundaino zertaz mozorrotuko naizen erran gabe.

**Eguneko ala gaueko besta?**
Egunekoa.

**Zer dute faltan Etxalarko inauteriek?**
Urte batzuez astearteko desfilea nahiko tristea izandu zen, baina orain hagitz ongi daude. Gazteek lan haundia egiten dute eta ongi antolatzen dituzte.

**Etxalarko txokorik gustukoena?**
Mendiak. Usategi aldera, Azkua aldera, Atxuria aldera... Denak aski politak dira.

**Zer du Etxalarrek berezia?**
Garbitasuna eta etxeak ongi kuidatuak daudela.

**Amets bat?**
Momentuan momentukoa egitea gustatzen zait. Ahal bada, ez utzi biharko gaur egiten ahal dudana.



**Jabier ITURBIDE ➔ Etxalarko inauterizalea**















# BERA

**GIZARTEA** ➜ URTARRILAREN 21EAN EGIN ZEN INAUGURAZIO OFIZIALA

## Matzada berritzen lagundu dutenak zoriondu ditu Udalak

### Kirolgunea osatzen joan nahi dute orain

**TTIPI-TTAPA**

Matzada futbol zelaia berritzeko proiektuan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkie Udalak. Orain dela 25 urte egin zen Matzada futbol zelaia berritu da. Belar naturaleko futbol zelaia izateak mantenimentu eta erabilera aldetik eragozpen haundiak ditu eta aspalditik zegoen proiektu hau Berako Udalaren agendan. Azkenean 2016an baldintzak eman dira proiektu hau aitzinera ateratzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA
Ane Bergara omendu zuten futbol zelaiaren inaugurazioan eta Udalak ere zoriondu du.

Udalak onartzen du lana egin ahal izan dela, «neurri haundi batean Gure Txokoako futbol ataleko ordezkariek Nafarroako eta Gipuzkoako federazioekin egindako lanari esker 120.000 euro lortuz, bertzetik Gure Txokoatik herriko enpresak babesle gisa proiektu hau bultzatzeko egin den lanagatik, guztira 170.000 euro jarri dituzte babesleek, kopuru honen erdia Nafarroako Gobernuko ogasuneko lege bati esker bueltan jasoko dute». Horregatik, eskerrak ematen dizkie Udalak egitasmo honetan parte hartu duten herriko hogei enpresa baino gehiagori.

Bertzetik, Udalak, aho batez hartu zuen konpromisoa, urtero mantenimentuan inbertitzen zen diru kopurua zerbait igo eta 23.000 euroko dirulaguntza bat emateko 14 urtez Gure Txokoari, futbol zelaiko obrak eta mantenimendua egiteko.

Honi guztiari esker Matzada futbol zelaia txukun-txukun gelditu da. Momentuz futbol zelaia bakarrik egokitu bada ere, Udalaren helburua Matzadako kirolgune osoa poliki-poliki osatzen joatea da. «Futbol zelai inguruan sekulako tokia dago eta jendea bertara erakarri nahi dugu kirola egin, paseatu edo arratsalde pasa egitera. Aurten gimnasia egiteko aparatu batzuk jarri eta inguruak txukundu nahi dira jendea oinez edo lasterka ibiltzeko eta aitzinera begira eskaeraren arabera bertze kirol azpiegiturak hemen jartzeko asmoa dago».

## FLASH

### Dorrea-Bidasoa bidegurutzea

Herrigunean mugikortasuna hobetu nahian Dorreako bidegurutzean aldaketak egin ditu Udalak. Oinezkoen pasabideak, zebrabideak, errespetatzea nahi dute eta bidegurutze honetan ez da egiten, ibilgailuek semaforoa berdea dutelako. Aldaketa honekin bidegurutzea arautzen duten semaforoak gorritik laranjara eta laranjatik gorrira pasako dira. Beraz, semaforoa laranja jartzen denean ibilgailuek pasa ahal izanen dute baina zebrabideak errespetatuz. Modu honetan oinezkoek izanen dute lehentasuna beti errepidea gurutzatzeko zebrabidetik herri guztian bezala.

### Endarlatsa historian zehar

Otsaileko azken asteburuan, Endarlatsak historian zehar izan duen garrantziaz aritzeko jardunaldiak antolatu dira. Hilaren 24an *Endarlatsako fusilamenduak. Santa Cruz apaiza* solasaldia eskainiko du Jesus Arrietak eta 25ean bisita gidatua eginen da Aurelio Gutierrezekin.















**KULTURA → OTSAILAREN 13TIK 28RA**

# Musikari ttikiak tailerrerako izen-emate epea irekiko du Musika Eskolak

## 0-3 urte arteko haurrei zuzendua

**TTIPI-TTAPA**

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak, Udalaren laguntzaz *Musikari ttikiak* musika tailerra antolatu du, 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendua. Izena emateko epea otsailaren 13tik 28ra irekiko da.

Matrikularen prezioa 35 eurokoa izanen da (haur bakoitzeko, helduek ez dute ordaintzen) eta plaza mugatuak dira. Hain zuzen, ordu bateko lau saio eginen dira Musika Eskolan martxoaren 17, 24 eta 31n eta apirilaren 7an, arratsaldez. 2014, 2015 eta 2016 urteko (urtarriletik irailera sortutako hau- rrek heldu batekin 16:00etan izanen dute saioa eta 2013 urteko haurrek (heldurik gabe) 17:00etan. Halere, matrikularen arabera antolatuko dira taldeak eta ondotik jakinaraziko dira egokitutako ordutegiak. Aralar Udal Musika Eskolako Unai Artola izanen da ikastaroemailea.

Izen-emateko 948 012 012 telefonora deitu behar da (astelehenetik ortziralera 08:00etatik 19:00etara).

Musikaren, jokoaren eta esperimentazioaren bidez gorputza eta ahotsaren jabetza landuko dute, baita gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio afektiboa ere. Tailerren ikuspen globala hagitz zabala da, bertan ikasleen kapazitate espresiboak, musikalak, intelektualak eta motrizeak garatuko dituzte eta kantuen errepertorio egokia ere landuko dute.

**Ba al zenekien ?**

**Light painting tailerra eginen dutela otsailaren 17an, ortziralean 18:00etan herri liburutegian**



UTZITAKO ARGAZKIA

### Euskal baserriaren jatorriari buruzko solasaldi interesgarria

Euskal Herriko baserrien jatorriaz aritu zen solasean Alberto Santana Beralandeta aretoan urtarrilaren 28an, *El origen del caserío vasco* hitzaldian. Jende aunitz hurbildu zen hitzaldi interesgarria aditzera. Alberto Santanak ETBko *Una historia de Vasconia* eta *Todos los apellidos vascos* saioak gidatzen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

### ETBko ‘Gu ta Gutarrak’ saioa jubilotekan grabatu dute

Euskal Telebistako *Gu ta Gutarrak* programaren atal bat Jubilotekan grabatzen aritu ziren urtarrilaren 28an. Bai partaide gazteek bai jubilotekakoek proba desberdinak egin zituzten: abestu, solasa, soinketa eta eskulanak. Batzuk zein bertzeek aski gustura pasa zuten larunbat arratsaldea!

**HILABETEAN BEHIN ANTOLATZEKO ASMOA DU UDALAK**

### Bertako produktuen merkatua egin nahi dute

Udaleko Garapen Batzordearen kezka haundienetako bat bertako ekoizleek eta baserritarrek bizirauteko dituzten arazoak dira. Lehenbiziko sektorearen egoera hau hobetzeko neurrien artean, produktuen salmenta zuzena bultzatzea neurri ona iduritzen zaio Udalari. Ildo horretan, Baztan-Bidasoaldeko ekoizleen merkatua hilabetean behin antolatzeko asmoa du. Interesatuek bera@bera.eus edo 948 012012.

KSAT TELEKOMUNIKAZIOAK
➤ TDT instalazioak
➤ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
➤ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
➤ Satelite bidezko interneta
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

# LESAKA

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 11N OIARTZUNGO ARDITURRIN ETA ARRITXULON

## Musika eta historiaren memoria Nafarroa Oinezeko lehen jardueran

Agiñako errepidea egin zuten 'trabajadoreen' inguruko bertso-trama eta tobera tailerra



UTZITAKO ARGAZKIA

Agiñako errepidea egin zuen bataloiko kideak, Arritxulo inguruan.

**Aitor AROTZENA**

Aiako Harriak eta Agiña mendialdeko natura ingurua aukeratu ditu Tantirumairu ikastolak Nafarroa Oinez 2017ko lehenbiziko ekimen kulturalak egiteko. Bi dira ekimenak, biak ere inguruari eta memoriari lotutakoak: Agiñako errepidea eraiki zuten *Trabajadoreak* -Frankismoko preso eta langile behartuak- ardatz hartuta osatu du bertso trama ikastolak. Langile haiek lanean aritutako leku berean arituko dira kantuan bertsolariak. Non, eta zehazki, langile hauen barrakoietako bat zegoen Arritxulon (Lesaka eta Oiartzungo mugan, Aiako Harrien ondoan). Esklabo horien lekuan arituko dira Amets Arzallus, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Eneko Fernandez bertsolariak 19:00etan. Bertzetik, bertso tramaren aitzinetik (16:30), tobera tailerra eskainiko du Soinuenea fundazioak Arditurrin, meategiei lotutako musika tresna izaki. Oiartzunen eta Lesakan toberak jotzeko ohiturari eutsi baitzitzaion, Euskal Herrian leku bakanetakoak.

### SARRERAK, IZENA EMATEA ETA AFARIA

Bertso tramarako sarrerak salgai dira 5 eurotan Izarra okindegian eta Oiartzungo Garmendia Txokolategian. Egunean bertan ere eskuratu ahal izanen dira. Gainera, bertso tramaren ondotik Arritxulon bertan afaltzeko aukera eskaintzen du Nafarroa Oinezek.

Horretarako aldez aurretik eman beharko da izena helbide honetan: *jarduerak@oinez2017.ikastola.eus*.

Tobera ikastaroetarako, berriz, bertaratzearekin nahikoa da. 16:30ean hasiko da tailerra, eta tenorez iristea eskertuko da. Bi ekimenetara joan liteke, baita bakarrera ere. Aparkatzeko lekua izanen da.

### Frankismoak behartutako langileak

Gerra Zibila bukatu eta ondorengo urteetan, frankismoko 12.000 *trabajadore* inguru aritu ziren behartutako lanetan Lesakan eta Oarsoaldean, Nafarroa eta Gipuzkoa artean. Taldeka banatu zituzten, eta *Batallones disciplinarios de Soldados Trabajadores nº 14* taldeak Lesaka eta Oiartzun elkartzen dituen Agiñako errepidea eraiki zuen.

### Toberak, Lesakan eta Oiartzunen eutsitako ohitura

Txalaparta bezala, ia desagertzear izan ziren Toberak Euskal Herrian. Bidasoa eta Donostialdean, baina, ohiturari eutsi zitzaion. Juan Mari Beltran ikertzaileak dioenez, Lesakan sutegiko hauspoetako tutuari deitzen zitzaion tobera, eta horiek garbitzeko lanetatik sortu zen joaldi mota hau. Joxan Artze poeta eta txalapartariak, Bautista Legasa *Erbia*-rekin ikasi zuen toberak jotzen.

## FLASH

### Zakozarren bilera

Inauterietan zakozar ateratzeko intentzioa dutenak bilera batera deituak daude otsailaren 18an, larunbat arratsaldeko 4etan Arrano elkartean. Horretaz gainera, Arrano elkarteak dei berezia egin du inauterietako igandean zakozarrak prestatzeko laguntzaile bila. Zakozarrak belarrez bete eta josteko nahi duten guztien laguntza eskertuko dutela jakinarazi dute Arrano elkartetik.

### Azken eguzkilorea

3-12 urteko haurrei zuzendutako *Azken eguzkilorea* antzezlana ikusgai izanen da otsailaren 19an, igandean 17:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrera: 3 euro.

### Jubilatuak kartetan

San Fermin jubilatu elkarteak antolatutako neguko mus, seiko eta nahaste txapelketak otsailaren 20tik 22ra jokatuko dituzte. Parte hartu nahi duten bikoteek izena ostatuko arduradunari eman behar diote.

### Elkartasun saskia

Elkartasun saskia 9.347 zenbakiari egokitu zaio eta Uxue Royo da sariduna. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete zozketa posible egin duten komertzio eta laguntzaile guztiei.









OSPAKIZUNAK ➜ OTSAILAREN 23TIK 28RA

# Inauterietako prest daude haur, gazte eta helduak

Asteartean izanen da karrozen desfilea

Irune ELIZAGOIEN

Ortzegun Gizenarekin hasi eta Astearte Inaute bitarte, ekitaldiz betetako egunak izanen dira aurten ere. Egitarauaren berri zabalagoa erdiko gehigarri berezian duzue.

## Altxatako urteko batzar orokorra

Otsailaren 18an eginen dute Altxatako urteko batzar orokorra kultur etxean arratsaldeko 19:00etan.

## Aurre-matrikulazio epea zabalik

2014. urtean jaiotako ikasleek otsailaren 13tik 17ra egin beharko dute datorren ikasturterako aurre-matrikulazioa Landagain eskolan.

## Sute elkartea

Urtarrilaren 22an, Etxalarko Sute Elkartearen batzar orokorra egin zen. Bazkideen eta kuoten eguneratzeari dagokienez, SEPA orria entregatu ez duten bazkideei 3 hilabeteko epea eman zitzaien orria itzultzeko. Batzuk oraindik entregatu ez dutenez, zuzenean baja automatikoa eman zaie. Bazkide hauen bajak kuotetan eragina du eta hauek nola eguneratu erabaki zen batzarrean. Bi aukera zeuden: Kapitala mantendu, baina bazkideen kuota handituz edota kapitala jaitsi, bazkideen kuota mantentzeko. Botazioa eginez kapitala mantentzea erabaki zen. Honek bazkideen kuota pixka bat igoko du.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

## Etxalarko trikiti afaria

Azkoitia, Azpeitia, Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Bergara, Mungia eta Euskal Herriko bertze hainbat txokotatik gerturatu ziren trikitilariak Etxalarrera urtarrilaren 28an. Ilunabarrean 40 bat trikitizalek poteoa egin zuten herriko ostatuetan, eta ondotik afaria izan zuten Larraburuan.



ARGAZKIA: EDURNE ELIZAGOIEN

## Zanpingorri mendi taldea Sunbillara

Urteroko ohiturarekin segituz, aurten ere dozena bat lagunek Etxalartik Sunbillara mendi ateraldia egin zuten inauteriak ikustera.

**Ba al zenekien ?**

**Otsailaren 4an, goizean xaboia egiteko ikastaro-tailerra egin zela merkatuan (pilotalekuan)**



# ARANTZA

**INAUTERIAK** ➜ OTSAILAREN 9TIK 11RA

## Mozorro lehiaketa antolatu du Guraso Elkarteak inauterietan

Haur eta helduetan sariak banatuko ditu

**Nerea ALTZURI**

Ate joka ditugu inauteriak, ortzegun honetan, otsailak 9, hasiko baitira. Eta larunbatera arte ez da aspertzeko astirik izanen. Aurten, Mozorro Zurien neska-mutil taldea izanen da, eta horiez gain, haurrak eta gaztetxoak ere ibiliko dira urtero bezala herrian eta baserri auzoetan. Puxka biltzeak, Emakumeen Afaria, bertso afaria, herri-kirolak, dantzaldiak, kalejira... Eta aurten, aspaldiko partez, mozorro lehiaketa ere bai.

Guraso Elkarteak larunbat arratsalderako antolatu du mozorro lehiaketa. 16:30ean kalejira izanen da eta ondotik sariak banatuko dituzte. Bakarka, bikoteka edo taldeka parte hartzen ahal da eta sari ederrak banatuko dituzte: haur zein helduetan mozorro onenaren sariak izanen dira eta accesit saria ere bai, hau da, epaimahaikideek bertze edozein pertsona edota talde ere saritu dezakete, hala merezi dutela ebatziz gero. Epaimahaiak kalejiran giro ona paratzea eta mozorroa egiteko izandako irudimena baloratuko ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere gisa aunitzetako mozorroak ikusteko aukera izanen dugu inauterietako larunbatean, eta gainera, hoberenak sarituak izanen dira.

### ESKOLAN ERE INAUTERIAK

Eskolan inauteriak ortzegun honetan ospatuko dituzte, eta iaz bezala, eskolako ikasle eta irakasleak Mozorro Zuriz jantziko dira.

Urtero bezala, 11:00 aldera, Mozorro Zuri nagusien bisita izanen dute eskolan eta horrela, inauteri bestak lehertuko dira. Haurrek Mozorro Zuriei beurek egindako bizkarrekoak paratuko dizkiete eta musika eta dantza tarteek ez dute hutsik eginen. Arratsaldean, eskolako lagunak karrikaz-karrika ibiliko dira kopla kantari eta bestari akabera emateko Guraso Elkarteak prestaturiko txokolatada izanen dute eskolan. Ortziralean, inauteriak direnez, ez dute eskolarik izanen.

### SINADURA BILKETA ORTZIRAL ETA LARUNBATEAN

Erabakitzeko eskubidearen alde sinadurak biltzen ere ari dira, herri galdeketa egiteko nahitaezkoa baita. Bada inauterietako ortziral eta larunbatean ere bilduko dituzte. 16 urtetik goiti eta herrian erroldatua izan behar da sinatzeko.

### Arkupeak-eko bazkideen besta

Arkupeak elkarteko bazkideak herriz-herri bestak egiten hasiak dira eta Arantzako bazki - deek ere eguna zehaztu dute: otsailaren 19an bilduko dira. 12:00etan meza izanen dute urtean zehar hildako bazkideen omenez, 13:30ean Burlada jatetxean bazkaria izanen dute eta ondotik mus txapelketa jokatuko dute. Bikote txapeldunak eta azpitxapeldunak finalerako txartela eskuratuko dute. Izen-ematea otsailaren 9an eta 10ean egin behar da, Mª Dolores Iturriari deituz.

**FLASH**

### Goienerren hitzaldia otsailaren 17an

Bazkideen artean energia %100 berriztagarria merkaturatzen duen irabazi asmorik gabeko kooperatiba hiritarra da Goiener. 2011n sortu zen Goierrin (Gipuzkoa), energia berriztagarrien erabilera sustatu eta energiaren kontsumo arduratsua bideratzeko. Bada otsailaren 17an, ortziralarekin, Udalak gonbidatuta, Goienerreko kideek hitzaldia eskainiko dute Baskulan, 17:00etan.

### Bertso afaria martxoaren 11n

Udaberrirako aurreikusia den herri galdeketa - rako prestaketa lanetan ari da Gure Esku Dago dinamikaren baitan sortutako Eman Bortzekoa Elkartea. Sinadurak biltzeaz gain, bertso afaria antolatu dute. Ekaitza Elkartean izanen da martxoaren 11n eta Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso bertsolariak etorriko dira. Inauterien ondotik afarirako txartelak salgai paratuko dituzte herriko ostatuetan, 20 eurotan.

ola SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

ttipi-ttapa
aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58 · erran.eus


**GIZARTEA** ➜ CROWFOUNDING KANPAINA PROIEKTUAN AITZINERA EGITEKO

# Bi hozkailu lortzeko diru-bilketa kanpaina abiatu du Bidazi elkarteak

Ilbeltzaren 25ean abiatu eta 40 egun iraunen du

**TTIPI-TTAPA**

Bertze gisako produkzioa eta kontsumoa bultzatu nahian, bizi-kalitate osasuntsu eta jasangarriago bat lortzeko bidean, Bidazi elkartearen proiektuak aitzinera pausoak emateko *crowfunding* edo diru bilketa kanpaina abiatu berri du. Hozkailu bat martxan jarri ahal izateko 3.500 euro biltzea da lehen helburua eta bigarren hozkailu bat instalatzeko 7.000 eurora ailegatzea ere izanen litzateke egokiena. Ilbeltzaren 25ean abiatu eta 40 egun iraunen du kanpainak. Hortaz, Bidazi ezagutzera eta *crowfounding*-ean parte hartzea gonbidatzen dute jendea eta trukean azokan eskura daitezkeen zonaldeko ekoizleen zenbait produktu jasoko dituzte (sagardoa, ardoa, gasna…) eta «eskualderako positiboa den proiektu polit bat lagundu izanaren ohorea».



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Alkaiagako azokan hozkailua martxan jartzea da diru-bilketaren helburua.

## ZER DA BIDAZI?

Bidasoaldean hedatua den elkarte bat da "Bidazi", bertako baserritar, familia, ekoizle ttiki eta kontsumo taldeak elkartzen dituena, haien osasunari garrantzia ematen diotelako eta eskualde hobe bat eraiki nahi dutelako, bertako ekonomia bultzatuz eta lanpostu duinak sortuz, lehenengo sektorea biziberrituz.

Bidaziren filosofiaren ardatza, kontsumo eta ekoizpen kontziente eta arduratsua da, eta horren inguruan bertze hainbat arlo ere ukitzen ditu: energia berriztagarriak, banka etikoak, hondakinen gestioa, bidezko merkataritza…

Bertzelako eredu bat bultzatu eta jaten ikasteaz gain, formazioa ere ematen da, ikastaro, hitzaldi, irteera, tailer, eta bertze zenbait ekimenen bidez.

## ZEIN DA BIDAZIREN ERDIGUNEA?

Produktu ekologikoak saltzen diren azoka bat da Bidaziren erdigunea, Alkaiagan, non ezinbertzekoa den salgai jarritako produktuak ekologikoak izatea (edo bidean) eta ahal bezain hurbilen ekoiztuak izatea.

Azoka hau duela hiru urte ireki zen, baina orain jauzi bat eman nahi dute produktu freskoen eskaintza behar den bezala bermatzeko: bi hozkailu martxan eman nahi dituzte. Horrela, ekoizleei produktu gehiago saltzeko aukera eman eta kontsumitzaileentzako eskaintza zabaldu eginen da.

Hozkailu hauek martxan jartzeak suposatzen duen gastua ordaindu ahal izateko, *crowfounding* bat martxan jarri dute. *http://goteo.cc/bidazi*

## ZER DA "CROWFOUNDING" BAT?

Internet bidez dirua biltzeko martxan ematen den kooperazio kolektibo bat da. Partikularren ekarpenen bidez, proiektu zehatzak finantziatzen dira. Partikular hauek proiektuaren laguntzaile bihurtzen dira, eta gainera, opari bereziak lortzen dituzte, ekarpenaren arabera.



# KULTURA

KULTURA ➜ FINALA APIRILAREN 8AN IRUÑEAN

## Parte hartze handienarekin dator Nafarroako Bertsolari Txapelketa




ARTXIBOKO ARGAZKIA
Duela bi urte Elizondon jokatu zen finala, baina aurten Iruñeko Anaitasunara bueltatuko da.

Final laurden bat Iruritan eta finalaurreko bat Beran eginen dira

TTIPI-TTAPA

Inoiz baino bertsolari gehiagok eman dute izena Nafarroako 43. Bertsolari txapelketan; 35 izan dira osotara. Horietatik bederatzik lehen aldiz parte hartuko dute txapelketan; horiekin kanporaketa saio bat egin zen abenduan Iruñean. Kanporaketa horretan lau bertsolarik –Saats Karasatorre (Etxarri Aranatz), Joanes Illarregi (Leitza), Joana Ziganda (Oskotz, Imotz) eta Sahats Aleman (Arika, Berriobeiti)- lortu zuten final-laurdenetarako txartela. Horrenbestez, 30 bertsolariekin abiatuko da final-laurdeneko fasea. Horietatik 16 eskualdekoak izanen dira.

Guztira, beraz, hamar saio izanen ditu Nafarroako Bertsolari Txapelketak; abenduan egin zen kanporaketarekin batera, otsailaren 18tik apirilaren 8ra bitarte jokatuko diren bost final-laurdenek, hiru finalaurrekoek eta finalak osatuko dute egutegia. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko da finala, apirilaren 8an.

Lehen final laurdena, **otsailaren 18an**, 17:30ean ariko dira Tafallan Julio Soto, Kotte Plaza, Iñigo Olaetxea, Iban Garro, Mikel Lasarte eta Sahats Aleman.

**Otsailaren 19an**, 17:30ean Auritzen ariko dira Xabier Terreros, Saioa Alkaiza, Alazne Untxalo, Patxi Castillo, Ioar Tainta eta Joana Ziganda.

**Otsailaren 26an**, 17:30ean Lakuntzan ariko dira Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Iker Gorosterrazu, Joanes Illarregi, Egoitz Gorosterrazu.

**Martxoaren 4an**, eskualdeari kuku eginen dio txapelketak eta Irurritako Gizarte Bilgunean ariko dira, 17:30etik aitzinera Oskar Estanga, Julen Zelaieta, Amaia Elizagoien, Josu Sanjurjo, Ekaitz Astiz eta Saats Karasatorre.

Azken final-laurdena **martxoaren 5ean** eginen dute Uharten. Eneko Fernandez, Ander Fuentes *Itturri*, Sarai Robles, Xabier Maia, Irati Majuelo eta Oscar Sanz de Acedo ariko dira.

### LEHEN FINALAURREKOA BERAN

Final-laurdenetatik sailkatutako sei bertsolarik **martxoaren 18an** jokatuko dute lehen finalaurrekoa Berako Kultur Etxean, 17:30ean.

Bigarren finalaurrekoa **martxoaren 19an** eginen dute Antsoaingo antzokian eta hirugarrena Agoizko Kultur Etxean **martxoaren 26an**.

Finalaurrekoetan sailkatutako zortzi bertsolarik jokatuko dute finala **apirilaren 8an**, 17:00etan Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

---

HUESCAKO SOBRARBE-KO JAIALDIRA MUNDUKO 400 LAN AURKEZTU ETA JON ABRILEN LANA AUKERATUTAKO 23EN ARTEAN DAGO

## ‘Espiello’ etnografia-dokumentaleko zinemaldirako hautatu dute ‘Neskatoak’

TTIPI-TTAPA

Huescako (Espainia) Sobrarbe eskualdean egiten den *Espiello* etnografia-dokumentaleko zinemaldirako hautatu dute Jon Abril beratarren Neskatoak dokumentala. Jaialdira mundu osoko ia 400 lan aurkeztu dira, eta Abrilen lana aukeratutako 23en artean dago.

*Espiello* (ispilua, aragoieraz) etnografia-dokumentalean espezializatutako zinemaldia da, eta aurten XV. aldia izanen du. Martxoaren 24tik apirilaren 1era eginen da Aragoiko Pirinioan dagoen Boltaña herrian, Sobrarbe eskualdean. Neskatoak lana martxoaren 28an emanen da, 22:00etan, herriko Kongresu-aretoan. Abrilen lana sari nagusietan lehiatuko da, eta baita Pirinioetako sortzaileen arteko lanik onenera ere.

### NESKATOAK DOKUMENTALA

Joan zen martxoaren 6an estreinatu zenetik, Euskal Herriko 50 herritan baino gehiagotan aurkeztu da dokumentala. Aitzinera begira ere, Emakumearen Egunaren inguruan, martxoaren 3an Abadiñon, martxoaren 5ean Bergaran, martxoaren 6an Anoetan, martxoaren 10ean Burlatan, martxoaren 14an Arrigorriagan eta martxoaren 28an, aipatu bezala, Sobrarbeko Boltatañan emanen dute.

1940 eta 1970 urteen artean Ipar Euskal Herrira eta Frantziako bertze hainbat tokitara lanera joandako emakumeen bizipenak jasotzen ditu *Neskatoak* dokumentalak, tartean Baztan-Bidasoko 15 emakumerenak.

Dokumentala zuzendu duen Jon Abril Olaetxea (Bera, 1975) kazetaria da ikasketaz, kultur kudeaketan aditua, eta gaur egun Elhuyarren dabil lanean, partaidetza teknikari moduan. Hainbat hedabidetan lanean eta kolaboratzaile lanetan jardun ondotik, hau du bere lehenbiziko dokumentala zuzendari moduan.

# BORTZIRIAK
# TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!




**Caser Residencial Anaka**
%5 DESKONTUA Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zentroan. Txartelduna eta bere 2. graduko senideak barne
Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

**Agara Kirolak**
%5 DESKONTUA kirol artikuluetan
%10 DESKONTUA ehiza arropetan
Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

**Alzuri Elektrizitatea**
%5 DESKONTUA etxetresnetan promozioetan ezik
Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

**Arduro**
%5 DESKONTUA arropetan
Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

**Bianditz Nekazarien Etxea**
%5 DESKONTUA pentsu ekologikoetan
Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

**Bixkilak kirol eta modako arropa denda**
%5 DESKONTUA
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

**Bortzirudi**
DESKONTUA
%15 Kamiseletan
%10 Inprenta lanetan
%5 kopia, enkuadernazio eta plastifikaziotan 3€tik goiti
* Aurrekontutik kanpo
Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

**Elika Dietetika eta elikadura**
%5 DESKONTUA kontsultan
Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

**Intzuri Optika**
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

**Irisarri Land**
%50 DESKONTUA sarreran
%10 DESKONTUA tirolina eta penduloetan
Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 928 922

**Katea Bike**
%5 DESKONTUA konponketetan
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

**Kattagorria**
%10 DESKONTUA lentzerian
Beheko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

**Lirain Estetika eta ongizate zentroa**
%5 DESKONTUA kosmetikan
%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik
Iparraldea, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

**Lesakako Udal Kiroldegia**
%40 DESKONTUA matrikulan
Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

**Oreka nutrizioa eta dietetika**
%5 DESKONTUA kontsultan
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

**Ostargi optika**
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

**HK podologia Nora Maiza**
5€ DESKONTUA ibilkeraren azterketa digitalean
Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

**Semper**
%10 DESKONTUA matrikulan
BERA | T. 948 63 02 98

**Semper**
%10 DESKONTUA matrikulan
LESAKA | 948 63 82 99

**ttipi-ttapa**
%10 DESKONTUA eskeletan
Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

**txinelka**
%10 DESKONTUA erosketa guztietan
Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

**Urdi Bera**
%20 DESKONTUA urteko abonuaren matrikulan
Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

**Zela Kirolak**
%5 DESKONTUA erosketa guztietan
Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

**ZU loredenda dekorazioa osagarriak**
%5 DESKONTUA lore moztuan 30€tik gorako erosketetan
Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

# SUNBILLA

**OSPAKIZUNAK ➜** ILBELTZEKO ASKEN ASTEBURUAN

## Karrozen desfileak borobildu ditu inauteri bikainak

Gazteak auzoz auzo puxka biltzen, emakumeen afaria eta bertze hainbat ekitaldi

**Maider PETRIRENA**

Inauteriak giro bikainean joan dira. Asteburu paregabea izan da herritar eta bisitari guztientzat.

Herriko gazteek Ariztigain kanpinean ortziralean egin zuten gosari ederrarekin hasi ziren inauteriak. Ondoren bi taldetan banatu eta baserrietara eskean ibiltzera joan ziren, Joxe Angel eta Modesto akordeoilariekin. Arratsaldean eskolako irakasle eta ikasleek danborrada soinuaz gozatzeko aukera eman zuten. Lehenik frontoian eskaini zuten emanaldi ttiki bat eta ondoren herriari buelta ematera atera ziren. Arratsalde partean musika izan zen frontoian Agerralde akordeoilariarekin eta gauean berriz emakumeen txanda izan zen. Emakume afariaren 23. edizioa zen aurtengoa eta 90 emakume inguru elkartu ziren afari eta giro ederraz gozatzeko. Ondoren Pali Dj-ak jarritako giro apartarekin gozatu zuten.

Larunbatean ere gazteak herrian eskean ibiltzen dira. Arratsalde partean haurrendako besta izan zen Ulibeltzak Elkartean.

### KARROZA DESFILE IKUSGARRIA

Igandea, egun handia, paregabea, koloretsua eta jendetsua izan zen. Karrozen desfilea izaten da herrian eta urtetik urtera ikusten da lan gehiago eta jende gehiagok parte hartzen duela. Lehen hiru karrozak betikoa eskaintzen diete ikusleei: salda (500 litro inguru), tortilla (1400-1500 arraultze), gaztainak (40 kilo), ardoa (250 litro) eta taloak gaztarekin. Hauen ondoren Trolls karroza koloretsu eta ederra, Kolonbiako kafe biltzaileak Juan Valdes Kontxita astoarekin (ikusgarria izan zen astoak eragin zuen ikusmina. Denek disekatua zegoela uste zuten baina ez zen horrela izan, Kristina Elizondok eskuz egina baizik), mexikarrak ere hurbildu ziren beraien kantu eta dantzekin. Txamukos taldeko Beñat Mitxelena teklatuan eta Fernando Otano abeslariak parte hartu zuten eta beraien abestiak zuzenean eskaini ere. Hauen segidan gimnasio bat grasak kentzeko, ijitoen lehengo karreta bat, Munitxeko Oktoberfest, National hipodrome Sunbilla (hauek karrera berexiak egiten zituzten), animalien granja, Celia Cruz bere taldearekin kantuan eta dantzan, eta desfilea akitzeko Behin batean… sorgindutako basoa (koloretsua, koreografiarekin…).

Desfilea akitu ondotik zerria eta bildotsaren zozketa egin ziren. 7.000 boleto inguru saldu ziren eta bi sariak herrian gelditu ziren. Zerria Santos eta Jose Luis Iriarte Ibarrari tokatu zitzaien eta bildotsa berriz salda egiten duen taldeari.



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA ETA MAIDER PETRIRENA

Gazteen atsedenaldia eskearen ondotik eta karrozen desfileko zenbait argazki.



ARGAZKIA: JONTXU ANZIZAR

### Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa

Euskal Herriko mus txapelketako Sunbillako kanporaketa urtarrilaren 21ean egin zen Sunbillan eta ondorengoa izan zen sailkapena: 1. Jose Luis Agirre-Jose Miguel Galain; 2. Maria Sarratea-Aintzane Arretxea; 3. Jose Mari Arretxea-Mañoli Agirre; 4. Agurtzane Zubieta-Gorka Arretxea. Lehenengo bi bikoteek Iruñeko Arrano Elkartean jokatuko den Nafarroako kanporaketan parte hartuko dute otsailaren 25ean. Martxoaren 25ean, berriz, finala Anoetan izanen da.

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 23TIK 25ERA

# Mozorroak prestatzen hasiak dira aurtengo inauterietarako

## Gazteek emanen diote hasiera eta larunbateko orgen desfilea izanen da hitzordu garrantzitsuena

**Marga ERDOZAIN**

Otsailaren 23tik 25era ospatuko dira aurten inauteriak, gazteek emanen diote hasiera eta larunbateko orgen desfilea izanen da hitzordurik garrantzitsuena (ikusi egitarau osoa gehigarrian).

Hasi da bai inauterietako prestakuntza: karrozak poliki poliki itxura hartzen ari dira, mozorroen trukaketa, osagarrien erosketak, moldaketak, jantzien josketak, buru-hausteak… Urduritasuna, denbora falta… baina urtero bezala, dena prest aurtengo mozorro bestari aurre egiteko. Inauteriek magia hori dute, norberak harrapatzen dio bere neurria: mozorro-mozorro, mozorro-diseinu, mozorro-mailegu, mozorro-ganbara, mozorro-interneta, mozorro-barrideak utzi - takoa… Den-denak balio du, herria urteroko katarsis eta erritualean murgiltzeko prest dago. Mozorroaren eragina urte osoan zehar nabaritzen da, horregatik, mimo handiz prestatu behar da.

Mozorrotzen ez denak ere goza dezala!



UTZITAKO ARGAZKIA

### Santi San Miguel, Euskal Herriko beterano onena duatloian

Euskadiko Triatloi Federazioak 2016ko Euskal Herriko Triatloi eta Duatloi zirkuituko sariak banatu zituen urtarrilaren 28an Itziarren egindako galan. Duatloiari dagokionez, Erreka Tri taldeko Santi San Miguel doneztebarrak eskuratu zuen beterano onenaren saria. Euskal Herri osoan antolatzen diren hamar probek osatzen dute zirkuitua eta horietako sei marka onenak hartzen dira kontuan sailkapena osatzerakoan. Santi Miguelek sei probatan parte hartu zuen, Sopelan, Basaurin, Oñatin, Durangon, Azkoitian eta Valtierran eta horietatik hiru irabazi zituen beterano kategorian, bertze bitan bigarren izan zen eta bertze batean hirugarren. Emaitza horiei esker irabazi du zirkuitua beterano mailan eta maila absolutuan ere laugarren izan da.

**MARTXOAREN 8RAKO EKINTZAK**

## Emakume Langilearen Egunerako egitarau zabala lotzen hasiak dira




**Marga ERDOZAIN**

Emakume Langilearen Nazioarteko eguneko ospakizunak lotzeko bilera idekia burutu du Udalak herritarren ekarpenak jasotzeko. Bilkura pasa den otsailaren 6an burutu zen Herriko Ostatuan. Aurtengo egitaraua osatuko da Mankomunitateko Prebentzio batzorde eta Mendaur Institutukoekin batera. Hurrengo alean zehaztapenak emanen baditugu ere, aipatzen ahal da hagitz zabala izanen dela aurtengo eskaintza: bertso emanaldia (Testurak emanaldia), lilatoia, antzezlana, Mendi abesbatzakoen emanaldia, ipuin erotikoen emanaldia (Ines Bengoaren eskutik)… Horretaz gain, aipatu behar da Prebentzio Batzordetik Donostiako Lilatoian parte-hartzeko gonbita luzatu zaiela Malerrekako emakumeei. Martxoaren 5ean burutuko den lasterketa honetan izena emanen duten emakumeak batera joanen dira. (Animatzen denak Errekako Emakume Korrikalari taldera jo dezala).

**FLASH**

### 20. Korrika apirilaren 3an Malerrekan barna

*BatZuk* leloa izanen duen aurtengo korrikari gure eskualdean ongietorria egiteko batzordea osatu da. Apirilaren 3an gure eskualdetik pasako da: Oieregi, Narbarte, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta eta Saldias herriak zeharkatuko ditu arratsaldeko 8etatik gaueko 11ak bitartean. Batzorde honek dagoeneko bi bilera burutu ditu hainbat gai jorratu eta aitzinera ateratzeko. Korrika ekimenen barrenean aurreikusten da kilometroen salmenta, dagoeneko martxan da (arruntak 425 eurotan eta udalei saltzen zaizkienak 600 eurotan), korrika laguntzaileen bilaketa (12 euroren truke), *korrika lagun* komertzioetan jartzeko; baita korrikako arropa saltzeko tokiak bilatzea. Kartelak eta bertze materialak ere banatu dira: Kartel erraldoiak, mutuak, laguntzaileenak eta gainerakoak, baita txapak ere. Beraz, dena prest, baita korrika kulturalaren barrenean ekimenak burutzeko ere.

### Otsaileko kultur agenda

Zinema emanaldiak otsailaren 12an (*Kubo* filma), 19an *Zikoinak* (bildutako dirua Korrikaren alde izanen da, Erreka Guraso Elkarteak kilometroa erosi baitu) eta 26an (*Piter y el dragón*) eskainiko dira, 16:30ean.

Ipuin txokoaren hitzorduak, beti bezala goizeko 11etatik 12etara eta otsailaren 14, 21 eta 28an.

# ARKUPEAK

ELKARTEA ➜ ILBELTZAREN 31N AKITU ZEN IZEN-EMATEKO EPEA

## Ikastaro ezberdinetan hasiko dira abudo bazkideak

Herriz herriko bestak ere hasiak dituzte, mus eta dantzaldiekin

Fernando ETXEBERRIA

Ikastaro aunitz izanen dituzte aukeran aurtengoan ere Arkupeak elkartekoek eta izen-emateko epea urtarrilaren 31n akituta hasiera datak zehaztu dituzte. Ordutegiak eta lekuak apuntatu direnei jakinaraziko zaizkie tenorez. Hauek dira atera diren ikastaroak: yoga, dantza, luzaketak, frantsesa, lorezaintza, kimaketa, pintura, memoria tailerra, igeriketa, aquagym, informatika eta, azkenik, *Landu zure burua, ongizatea hobetu, ongi bizi, hobetu sentitu* izenekoa.







ARGAZKIAK: FERNDANDO ETXEBERRIA

Legasatik atera eta Otolora igo ziren mendizaleak, Gaztelutik pasatuz.

### Herriz herriko bestak

Arkupeak elkarteko herriz herriko bestak antolatzen dituzte urtarrila, otsaila eta martxoan. Zenbait herritan mus txapelketak jokatzen dituzte eta besteetan dantzaldia ere izaten dute. Urtarrilean Ezkurra eta Eratsungo jaiak egin dituzte. Otsailean, Baztangoiza, Urdazubi, Zugarramurdi, Almandoz, Berroeta, Aniz, Arraioz, Oronoz, Oieregi, Narbarte, Legasa, Doneztebe, Gaztelu, Oiz, Urroz, Elgorriaga, Ituren, Leitza, Areso, Etxalar, Arantza eta Igantziko ospakizunen txanda izanen da eta martxoan, Sunbilla, Elizondo, Elbete, Lekaroz, Gartzain eta Iruritakoena.

### Irteera Legasara

Urtarrilaren 26an, Arkupeak elkarteko 43 mendizale Legasako pilotalekuaren aitzinean bildu ziren, Otolo mendira irteera egiteko. Sagardia familiaren hilketa ikaragarria gertatu zen Gazteluko leze famatuan gelditu ondotik, Gaztelura jautsi ziren eta gero, bidaxkaz bidaxka, berriz ere Legasara bueltatu ziren. Ederki baz - kaldu zuten, Tomas musikan lagun zutela, kantu eta dantza artean. Hurrengo ateraldia otsailaren 21ean eginen dute Beran. Berako mendizaleak arduratuko dira ibilbidea eta bazkaria antolatzeaz.

### Kuoten kobraketa

Arkupeak Elkarteko bazkideen urteko kuota (10 euro) otsailaren 28an kobratuko da. 85 urte bete dutenek ez dute ordaindu beharrik izanen.

---

IRUÑEAN DAGO ESKUALDEARI ZERBITZUA ESKAINTZEN DION BULEGOA

## Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzua zabaldu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzua zabaldu du. Orain arte, Tutera eta Lizarran eskaintzen zen zerbitzua eta abenduaren 15ean bi gune berri jarri ziren martxan, bata Tafallakoa eta bertze bat Iruñean, Iruñerriko eta Nafarroako iparralde guztirako (Altsasutik Zangozaraino).

Genero indarkeria sufritzen ari diren emakumeei harrera integrala emateko profesional ezberdinek lan egiten dute bertan: gizarte langilea, gizarte hezitzailea, psikologoak eta abokatuak. Euskaraz ere aritzeko aukera bada.

Gaiaren inguruko informazio orokorra eta oinarrizkoa, aholkularitza, esku hartze psikosoziala, lege kontuen inguruko informazioa, lan-arloko argibidea, laguntza ekonomikoen informazioa, osasun-arloari buruzko argibidea edo babesaren alderdien informazioa eskaintzen dute bertan.

Eskualdeari dagokion bulegoa Iruñean dago, Valtierra karrikako 13. Zenbakian, beheko pisuan (Orvinaren gibeleko aldean). Zuzenean, 948 004952 edo 948 004953 telefonoetara deitzen ahal da, astelehenetik ortzegunera, 08:00etatik 19:00etara eta ortziraletan 08:00etatik 17:00etara. Horretaz gain, Gizarte Zerbitzuen bitartez edo genero indarkeria sufritzen ari direnentzatko harrera zerbitzuen bidez ere jar daiteke harremanetan.

# ELGORRIAGA

**OSPAKIZUNAK ➜** URTARRILAREN 20 ETA 21EAN

## Giro ederrean joan dira aurtengoan ere inauteriak

**Mattin LARRALDE**

Aurtengo inauteriak joan zaizkigu. Urtarrilaren 20an, ortziralean, kalejira ondoren afaria izan zen eta jendeak kantuz pasatu zuen afal ondoa.

Larunbatean, gosariaren ondotik herrian barna puxkak biltzen ibili ziren gazteak. Ondotik bazkaria izan zen. Arratsaldez txikiteroen batukada zegoen jarria programan, baina bi orduz inauteriek alto egin zuten. Arratsean afaria izan zen eta ordu txikiak bitarte musika izan zen, Francisco akordionistarekin. Igandean, gosaldu ondotik, jendeak mozorroak jarri zituen eta herrian barna ibili zen. Mozorroen lehiaketa ere egin zen, eta zozketekin eta luntx batekin goizeko egitaraua akautu zen. Arratsaldez mus txapelketa izan zen eta berendu-afaria ere egin zuten.

### Batzarra

Udalak batzarrera deitu zuen jendea. Alde batetik presa bota nahi dute eta horretarako zer neurri jartzen duten informazioa zabaldu zen, gero jende artean aztertzeko. Aurten, herrian egin daitezkeen lanetaz ere solastu zuten eta ondoren, berendua egin zuten batzarrera hurbildu ziren 55 bat lagunek.

### Heriotza

Inauterietako astean gure herrian bizi zen Irune gaztea hil zen. Horregatik, gazteak bere omenez egin zen mezara hurbildu ziren. Hauspolariak taldeko bi kide ere bertan izan ziren, Irune baitzen taldean akordeoia jotzen zuena. Herriak ere bere omenaldia eskaini zion meza honen bidez. Lerro hauek aprobetxatzen ditut bere ama Sagrariori eta bere aita Migueli doluminak eta besarkada haundi bat bidaltzeko.







ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Mozorro besta plaza inguruan.



# AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA

**OSPAKIZUNAK** ➜ GERO ETA JENDETSUAGOAK

## Eguraldiak ere lagundu du inauteriak bikainak izan daitezen

Inauteri Astelehenean 83 joaldun bildu ziren Iturenen eta asteartean 70 Zubietan

**TTIPI-TTAPA**

Urtarrileko azken egunetan eta otsaileko hasieran inauterietan murgilduta ibili gara. Ortzegunarekin lehenbiziko joare soinuak entzun ziren puxka biltzean. Biharamunean eskolara iritsi zen besta, mozorroak eta joaldun ttiki batzuk ibili baitziren. Larunbatean, Iturengo Herriko Etxeko sabaian eta Aurtizko elkartean afariak izan zituzten. Igandean puxkak bil - tzen ibili ziren.

Astelehenean, ederki gosaldu ondotik pres - takuntzetan hasi ziren Iturengo egun handirako: batzuk joareak jartzen, besteak karrozak, mozorroak... Iturengo joaldunak, Aurtitz eta Zubietako joaldun eta mozorroen bisitaren esperoan gelditzen dira. Hiru taldeak elkartuta aspaldiko joaldun ilararik handiena bildu zen, 83 denera: 28 heldu eta 6 haur Iturengoak, 30 heldu eta 2 haur Zubietakoak eta 14 heldu eta 3 haur gehiago Aurtizkoak. Akitzeko, Aurtiz eta Zubietako joaldunei beraien bidea hartzera lagundu zieten Iturengo joaldunek, asteartera arte agurtuz. Baina joaldun eta mozorroen besta eguerdi-arratsaldean bukatu baldin bazen ere, juerga eta giro onak segitu zuen otordu eta musika soinuekin ordu ttikiak arte.

Asteartea Ituren eta Aurtiztik Zubietara joateko eguna izaten da, bisita bueltatuz. Orduan 70 joaldun bildu ziren, Zubietako 26, Iturengo 20 eta Aurtizko 12 atera ziren, etorkizuna badela nabarmen utzi zuten 12 haur eta gaztetxorekin batera.

Asteazkena ere egun polita izaten da, arra - tsaldean haurrek joare soinuekin egiten baitute puxka biltzea.

Inauterietako azken txanpa otsaileko lehen asteburuan izan zen. Iturendarrek inauteriei bukaera eman zieten kontuen egunarekin. Aurtiztarrak ere larunbatean bildu ziren elkartean, Zaharren afarian, baina inauterien bukaera igande eguerdian izan zuten, kontuak ordaindu ondotik, bazkariaren inguruan elkartuta.













ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL, AINARA MINDEGIA ETA IZASKUN ZUBIALDE

Giro ederra sortu dute aurten ere joaldunek eta mozorroek Ituren, Aurtitz eta Zubietako karriketan. Goitian, Inauteri Astelehena Iturenen eta hurrengo orrian, Asteartea Zubietan.










# ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

## 2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin




- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko gorena
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE
629 951 170

# BAZTAN-BIDASOA

**GIZARTEA ➔** EGUBERRIETAN BUKATU ZEN KANPAINA

## 2.000 tupper baino gehiago banatu dituzte arraindegietan




UTZITAKO ARGAZKIA
'Hondakinik onena, sortzen ez dena' zioten 2.000 tupper baino gehiago banatu dituzte.

Balorazio positiboa egin dute Baztango Udalak eta Bortzirietako Malerrekako Mankomunitateek

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateek, Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen baitan, arraindegietan sortzen diren plastiko eta paper hondakinak saihesteko tupperrak banatu zituzten joan den urte akabailan. Orduan aipatu zen bezala, kanpainaren helburu nagusia hondakinak sortzearen arazoei buruzko gogoeta eragitea, eta erosketak egiterakoan hau kontutan hartzea zen, gure erosteko ohiturek eta erosketak egiteko moduek eragin haundia baitute sortzen dugun hondakin kantitatean. Azaro akabailan hasi zen tuper banaketa eta kanpainak iraun duen bitartean 2.000 tupper baino gehiago banatu dira.

Honen ondorioz ohikoa bihurtu da gure eskualdeko arraindegietan bere tuperrarekin erosketa egitera doan jendea ikustea eta honi esker azken hilabete honetan eskualdeko milaka erosketetan paper eta plastikoaren erabilpena sahiestea lortu da.

Erakunde bultzatzaileetatik partehartzaile guztiak eskertu nahi dituzte hondakinen murrizpenean egin duten aportazioagatik. «Eskertzekoa da herritarren partehartze eta inplikazioa, baita eskualdeko arraindegiek kanpaina hau aitzinerat eramateko emandako laguntza eta erreztasunak ere».

Egitasmo honen baitan, tupperraren erabilpenak hainbat erosketa bono eskuratzeko aukera ematen zuen eta hala, eskualdeko arraindegi bakoitzean gastatu ahal izateko bono bana zozketatu da parte hartzaileen artean. Erosketa bono hauek, Baztango Udalak eta Bortziriak eta Malerrekako Mankomunitateek egindako aportazio ekonomikoari eta eskualdeko arraindegi gehienek gehiturikoari esker banatu ahal izan dira.

**SARIDUNAK**

Hauek izan dira irabazleak arraindegi ezberdinetan: Maria Josefa Oronoz, Iñaki Bengoetxea, Francisco Javier Olondriz, Feli Elizagoien, Miguel Pérez, Maria Angeles Retegi, Txaro Bengoetxea, Garbiñe Noble, Milagros Mendiberri, Marta Maia, Pili Santxotena eta Ana Alegria.

---

**BERAKO ETA ELIZONDOKO ZAHAR ETXEETAN MINTZAPRAKTIKAK**

## Euskalkide egitasmoa prestatu du aurten ere Solaslagunak



UTZITAKO ARGAZKIA
Euskalkideak iaz, Elizondoko Zahar Etxean.

**TTIPI-TTAPA**

Urtero bezala ikasturtean zehar hainbat saio jarriko ditu martxan Solaslalaguna egitasmoak. Urteko lehenbizikoa hau izanen da: Euskalkide aldaera Elizondoko eta Berako zahar-etxeetan. Tokian tokiko mintzamolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko espazioak sortu nahi ditu Baztan-Bortziriak-Malerrekako Solas - laguna egitasmotik abiatu den ekimenak.

Helburu zabalago batzuetan ere kokatua dago, hizkuntza portaeran eragitea, adineko pertsonekin hartu-emanak sortzea eta ondare inmaterialaren eramaleak diren neurrian, hauen esperientzietaz ikastea, bertzeak bertze.

Berako San Jose Zahar Etxean astean ordubetez elkartuko dira, eta zortzi saio eginen dituzte, martxoaren 4tik apirilaren 29ra bitarteko larunbatetan, 11:00etatik 12:00etara.

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean, berriz, hiru saio eginen dituzte otsailaren 10, 17 eta 24an, ortzirale arratsaldeko 5etatik 6etara.

Izen emateko 610 920673 telefonora deitu behar da (Oianko) edo *solaslaguna@topagunea.org* helbide elektronikoan.

# Etxalarko inauteriak



## EGITARAUA

### Otsailak 23, ortzeguna

**Goizean** haurrak eskean ibiliko dira **etxez-etxe**. **14:30**ean Landagain eskolako ikasleak plazatik aterako dira trikitilarien laguntzaz eta herriko xoko desberdinetan **antzerkiak** eta **dantzak** eginen dituzte. **Ondotik** Guraso elkarteak eskainitako **berendua** izanen da guztientzat **musikaz** lagundua.



### Otsailak 26, igandea

**Zaldun Inaute** egunean **kinto bestak** ospatuko dituzte.

### Otsailak 27, astelehena

**08:00**etan gosaria La Basquen. **Egun osoan,** herriko gazteak bi taldetan banatuta eskean arituko dira **goiko eta beheko auzoetan**.



### Otsailak 28, asteartea

**Astearte mozorro** egunean, **12:00** aldera **herriari itzulia** emanen zaio **mozorro eta karrozekin**. **Ondotik** bazkaria Herriko Ostatuan eta aldi berean, jubilatuen bazkaria Larraburuan. **18:00**etatik aitzinera **musika Andoni akordeolariarekin.**















Pinturas
Iñaki Alzuyet margoak
Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)
Fatxaden zaharberritzea
Barne-dekorazioa
Isolamenduak pladurrean
Pintura industriala
Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan
pinturasalzuyet@yahoo.es

VRDAZVBIKO VDALA
Urdazubiko Udalak inauteri zoriontsuak opa dizkizue urdazubiar eta bisitari guztiei !



**Estitxu SUHAS SANSIÑENA** | Urdazubiko gaztea

# «Inauterietan herritar guziekin egoten gara eta hori arrunt polita da»

## Zortzi bat urte zituenetik etxez-etxe eskean ibiltzen da

«Baden bestarik politenak dira inauteriak». Halaxe aitortu digu Estitxu Suhas Sansiñena urdazubiar gazteak. Agerian utzi du gustuko dituela inauteriak. Herriko bestak baino nahiago dituela ere kontatu digu, «gogo aunitzekin» bizi dituela eta «gazte guziek disfrutatzen» dituztela. Hala, aurten ere ez du etxean gelditzeko asmorik.

Neskato kozkorra zela hasi zen eskean: «ustez, 8 urterekin hasten ginen, eta hiru taldetan banatzen ginen. Gaur egun, bi talde daude. 8-16 urte bitartekoak eta 16 urterekin helduen taldean sartzen gara. Beraz, urte batzuk eramaki ditut inauterietan». Onartu digunez, «giro gehiago» izaten dute baserrietan ibiltzen direnean, «freskoago egoten garelako. Herria egiten dugun egunean hirugarren eguna izaten dugu, aitzineko egunetan egindako bestaren ondorioak somatzen ditugu, eta normalean lasaiago ibiltzen gara». Baina giro gehiago ala guttiago izan, hori da Estitxuri gehien gustatzen zaiona: «inauterietan etxez-etxe ibiltzen garelarik sortzen den giroa eta urte guzian ikusten ez dugun jendearen egoteko aukera izatea».



Bere irudiko, hori «arrunt polita» da eta garbi utzi digu oraindik ez duela eskea uzteko asmorik: «oraino ibiliko naiz», dio irriz.

Urte hauetan guztietan mozorro saila jantzi ditu, eta «denak» gustatu zaizkiola erranagatik, bat aukeratzekotan gan den urtekoa egin du, «*geishaz* egin ginenekoa». Aurtengo mozorroa ez duela prest dio, eta aitortu digunez, «gehienean azken momentukoak izaten gara». Hala ere, aurkituko du oraindik zerbait eta besta goizetik hasita, hantxe ibiliko da lagunartean, berak dioen bezala, «gorputzak irauten duen arte».








## EGITARAUA

### Otsailak 24, ortziralea

Bi herrietako haurrak eskolan mozorrotu eta **arratsaldean** herrira jeitsiko dira.



### Otsailak 26, igandea

**Goizean** gazteen **gosaria** izanen da Gauiñara elkartean **Segidan** mozorroak jauntzi eta Dantxarineatik barna, **bentaz-benta** abiatuko dira eskean ilundu arte. **21:30ean Mozorroturik etortzen diren haurrentzat sorpresa!** **21:30ean** **pintxoak** eta **musika** denentzat, animatu mozorrotzera!

### Otsailak 27 eta 28, astelehena eta asteartea

**09:30** aldera **herriko haurrak** elkartu eta **etxez-etxe** eskean ariko dira eta bukatzean herrira jautsiko dira. Gazteak, berriz, **10:00etan** elkartuko dira Karretero ostatuan eta kafea ttanttarekin hartu ondotik, **baserriz-baserri** ibiliko dira eskean trikitixa eta panderetarekin. **21:30ean** **pintxoak** eta **musika** denentzat.











ANTXITONEA Trinketea
24 logela bainuarekin · Aparkalekua
Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin
ONGI PASA INAUTERIAK!
Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ELBETEko POSADA
Ongi pasa inauteriak!
· Eguneko menua
· Plater konbinatuak
· Plater ttikiak prezio berezian
· Asteburuetan karta
· Asteburuko menu berezia
ELBETE · Karrikaundi · T. 948 581 519
info@posadaelbete.com · www.posadaelbete.com

Mañonea Agentzia S.L.
GENERALI Aseguruak
AGENTE ESKLUSIBOA Erregistro Zkia.: C0072B71193304
www.manoneasegursl.seguros.generali.es
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es
KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURIDIKO AHOLKULARITZA
www.mainoneaagentzia.com
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
mainonea@mainoneaagentzia.com



## EGITARAUA

### Otsailak 23, ortzeguna



**Oilar Dantza** edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek. Urtero bezala, karrikadantza, bazkari eta jostetak izanen dira goizean. **Arratsaldean, oilarren ordua** izanen da.

### Otsailak 24, ortziralea



**09:00** gazteak elkartu eta **puxka biltzea**ri hasiera emanen diote.
**16:00** haurren desfilea izanen da. Desfilearen **ondotik, txokolatea** eta **dantzaldia** antolatu dituzte haurrendako.
**22:00** Jantziloren erretzea plazan.

### Otsailak 25, larunbata



**Eguerdian mozorro** eta **orgen desfilea** eginen da herrian barna.

Suteia-Zaldain instalazioak
ongi pasa iñauteriak !
LEHEN ORAIN
IGOGAILUEN INSTALAZIOA
ELEBADOREAK
ETXE PARTIKULARRENDAKO
AROZTEGI METALIKOA
BALKOIETAKO TOLDOEN INSTALAZIOA
Santiago, 71 | 31700 ELIZONDO
T. 948 580 166 | M. 619 424 999

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.net
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN




**Rosa Mary SANCHEZ** | Elizondoko inauterizalea

# «Mozorroa jantzita kanpotik eta barrutik eraldatzen gara»

## Beteranoenen artean daude baina gazteenek bezain bertze gozatzen dute inauterietako desfilean



Egun batez, azala eta mamia aldatzeko aukera ematen dutelako maite ditu inauteriak Rosa Maryk «mozorroa jantzita, kanpoko itxura aldatzeaz gain, paperean ere sartzen gara». Betidanik mozorrotu izan da «duela urte dezente txarangarekin ateratzen nintzen, gero haurrekin eta haurrak koxkortu zirenean ohiturari eutsi nion». Eta jakin zuen ez zela ohitura horri zuen bakarra «duela hamabi bat urte kuadrilla desberdinetakoak elkartu ginen, mozorrotzea gustuko dugun jendea, eta *The Carnaval Show* taldea sortu genuen».

**«Kuadrilla desberdinetakoak elkartu ginen, mozorrotzea gustuko dugun jendea, eta *The Carnaval show* taldea sortu genuen».**

Hilabete bat lehenago hasten dira prestaketa lanetan «taldera ideiak botatzen joan eta erabakia hartzen dugu». Osaigarik garrantzitsuena «irudimena» dela dio eta «egiteko errazak eta oso garestiak ez diren gaiak» hartzen dituztela normalean zenbaitetan gehixeago konplikatu izan garen arren». Egin dituzten mozorro guztiak ditu gustuko «batzuekin gehiago identifikatzen zara, errazago sartzen zara paperean eta joku gehiago ematen dute baina mozorro guztiekin ongi pasatzen dugu». Pasa den urtean adibidez, «jubilatu taldea irudikatu genuen hondartzan eta ederki pasa genuen». Kadizko txirigotak, igeriketa sinkronizatua, aretoko dantzak... dira egindako bertze mozorro batzuk eta «guztietan musikak garrantzia handia izan du. Musikazale aunitz gaude taldean eta hori nabari da».

Garai bateko inauteriak eta egungoak alderatzeko ere eskatu diogu eta bere ustez «orain gaiak ugariagoak dira, kolore eta aukera gehiago daude. Lehen helburua jendeak ez ezagutzea zen, orain berriz, emaitza originala eta ikusgarria lortzea».



Bukatzeko gonbidapena ere luzatu du «herri guztia elkarrekin ibiltzen gara eta giro bikaina izaten dugu. Horregatik, denoi parte-hartzera gonbidatu nahi zaituztet».

Gazte edo ez hain gazte... inauterietarako duten gogoa ikusita, ez dago jakiterik nortzuk izanen diren erretiratzen azkenak.









# Berako inauteriak

ARTIEDA ESTANKOA
Estanco Nº 3
Cava de Puros
Plaza Urruña 1, bajo (Aguerra)
31780 Bera
Tel. 948 631 637
Fax. 948 631 654
estanco3@estanco3.e.telefonica.net
ongi pasa inauteriak!

IHAUTIK!!!
Bortziriudi
INPRENTA - KOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
kamisetak / oparitzeko artikuluak

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK
OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
ONGI PASA INAUTEAK!
TFNOA: 948 630 259 BERA

ZELAIETA
tabakodenda
egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta • BERA • 948 631 246
ONGI PASA INAUTERIAK

ongi pasa inauteriak!!!
EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
T. 948 63 10 27 - F. 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com



## EGITARAUA

### Otsailak 18, larunbata

**19:00** Kaldereroak Illekuetatik Herriko etxeko plazara abiatuko dira eta ordu erdi lehenago prest egon beharko da. Illekueta-Altzate-Legia-Zahar etxea-Eztegara-Iturlandeta-Bidasoa karrika-San Esteban karrika-Herriko etxea izanen da. Euria eginen balu, ekitaldia Altzateko pilotalekuan eginen litzateke.

### Otsailak 22, asteazkena

**18:00** Inauterietako **kontzertua** kultur Etxean. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatuta.



### Otsailak 23, ortzeguna

**15:45** Ortzegun gizen. Suhiltzaileen parketik Eztegara pilotalekura. **16:30** Haurrentzako berbena Eztegara pilotalekuan.



### Otsailak 26, igandea

**10:00**etatik aitzinera herrian barna, Eztegara pilotalekutik hasita Inude eta Artzaiak. **18:00** Eztegara pilotalekutik Altzatera Inude eta Artzaiak.

### Otsailak 27, astelehena

**Goizean** zingar-arraultzea **19:00-20:00** Batukada Batuklang taldearekin Altzateko karrikan.

BERAKO UDALA
Berako udalak inauteri zoriontsuak opa dizkizue!



**Jon De La Cruz** | Berako gaztea

# «Umorea eta ongi pasatzeko jarrera dira inauterietan behar diren osagai bakarrak»

## Inude eta artzaietan zein mozorrotuta, ongi pasatzea ziurtatua

Inauteriak eta umore ona eskutik doaz Jonen ustez «norbere buruaz irri egiteko aukera ederra da. Baita inongo arazorik sortu gabe gainontzekoetaz irri egitekoa ere. Beharbada egunero inauteriak balira hobe». Egun edo aste batzuk lehenago hasten da inauteri giroan sartzen «mozorroen prestakuntzetan aritzearekin batera». Inauteriak ailegatzean berriz «larunbat arratsaldean futbol partida izaten dugu urtero eta bukatutakoan Lesakan afaria egin ohi dugu taldekideok. Saiatzen gara arratsa sobera ez luzatzen, izan ere igandean goizean goizetik Inude eta Artzaietan dantzatzen ateratzen gara». Inauteri astelehena kuadrilaren txanda izaten da «gosaltzeko gelditzen gara eta hortik aitzinera gorputzak iraun arte».

**«Kantatzea zein dantzatzea ongi pasatzearen seinale dira, horiek gabe tristeagoak lirateke».**

### TTIKITATIK INAUTERIZALE

Umetatik bizi ditu inauteriak, gogoan du ikastolan 3-4 urterekin mozorroak prestatzen zituztela «irakasle eta gurasoek laguntzen ziguten eta mozorro hagitz politak egiten genituen». Ondotik, «koxkorxeago





ginelarik zingar arraultze eskean joaten ginen klasekideak eta oroitzapen bikainak ditut». Inude eta artzaien konpartsan ere gazterik hasi zen «haurren Inude eta Artzaien konpartsan egiten ez ziren bi kantak eta hirugarren dantza ikasi behar izan genituen». Orain, urteak pasa arren «lehenbiziko urte hartako gogoak mantentzen ditugu, horretan ez da gauza haundirik aldatu».

Mozorratzea eta mozorroak prestatzea gustatzen zaio «urtero hiru mozorro desberdin paratzen ditut» eta baita karrikak kolorez jantzita ikustea ere. «Fama aunitz duten Koloniako (Alemania) inauteriak ezagutzeko aukera izan dut. Iruditzen zait, gure inauterietako mozorroetan bariedade haundiagoa dagoela eta herri-koiagoak direla. Hemen bertze sexuaren arropak janzten ditugu inongo arazorik gabe, zer erranik ez Inude eta Artzaietako parodian. Han zaila da gizon bat emakumez jantzita ikustea edo alderantziz».

Berako inauterien egitarau zabala ere aipatu du «Beran suertea dugu, edozein adinetako jendeak duelako aukera inauteriak ospatzeko, Kaldereroetan, Inude eta Artzaien konpartsan edota Inauterietako astelehenean». Dena den, bada faltan botatzen duen ekitaldi bat «gu ttikiak ginenean egiten zen karroza desfilea, gerora berreskuratzen saiatu zena. Lehiaketa eta guzti egiten zen»















IZARRA OKINDEGIA
ongi pasa inauteriak!
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

IÑAKI JANARIDENDA
ONGI PASA INAUTERIAK
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ZOANSA
ONGI PASA INAUTERIAK
SEAT Audi HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 • Alkaiaga Ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

Erabili
TTIPI TXARTELA
pegatina hau ikusten duzun
denda eta zerbitzuetan


SUKALDERAKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK
BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Erakusketa: Bereau Etxea | LESAKA | Nafarroa
T. 948637266 | M. 607226891 | F. 948637511
bortzirialtzari@telefonica.net

**Josu SANJURJO** | Lesakako gaztea

# «Banda jotzen hasten den momentua hagitz polita da»

## Zakozarretan eta mozorrotuta, besta bertsoarekin lotuta, bateaz eta bertzean gozatzen du




Zakua eta alkandora soinean paratu, gorputza lastoz bete eta aurpegia estalita ibiliko da bertze urte batez Josu inauterie - tako igandean. Zakozarretan hamasei urterekin hasi zen ateratzen «eta behin bakarrik egin dut kale». Eguna ailegatu arte ez omen du erabakitzen atera edo ez «normalki aurreko egunean egin dudan bestaren araberakoa izaten da», hala ere, momentuz badirudi zakozarrek irabazi diotela partida ajeari.

Zakozarretan izaten den giroa azpimarratu du «berezia izaten da. Banda jotzen hasten den momentua hagiz polita da, oilo larrua jartzen zaizu». Gainera kuadrilan ateratzen dira eta politena «kalejiran zaudelarik elkar bilatzea da. Jendea alkandoragatik ezagutzen duzu».

Mozorrotzeko ohitura ere badu, «larunbatean bakoitza gure kabuz ateratzen gara. Lau trapu paratu eta kalera. Eta astelehenean zerbait originala pentsatu eta kuadrilako guztiak elkarrekin mozorrotzen gara». Aurpegia estalita eramaten ote duen galdetuta, ez aurpegi eta ezta gorputza ere «normalki arropa gutirekin ibiltzen naiz eta hurrengo astean izaten ditut komeriak. Sukarra... eta dena delakoak». Aurtengo helburua «gehixeago janztea da, ez eritzeko» erran digu barre artean eta baita ingurukoek mozorroa ulertzea ere, «lehengo urtean William Wallacetaz morrozotu nintzen eta denek erraten zidaten zeinen gaizki mozorrotua nengoen. Aurpegia margotzeko orduan ere ez nuen asmatu. Berak urdin eta zuriz margotua zuen, nik gorriz eta zuriz. Intentzioa ez zen txarra...».

**«Politena kuadrilakoekin zakozarrez atera eta kalejiran zaudelarik elkar bilatzea da. Jendea alkandoragatik ezagutzen duzu».**

**BERTSOTARAKO GAIA**

Inauterietako giroan sartuta, bertsoak ere ez dira falta izaten «normalean bertsotan bukatzen dut bazkalondoan. Hastea kostatzen zait, baina, hasten banaiz hasi... gero ez naiz ixilitzen». Ez dakigu inauteriak Nafarroako Txapelketarako entrenamendu egokia izanen diren. Parte-hartzaileen artean dago Josu eta martxoaren 4an Iruritako kanporaketan ariko da kantuan. «Presiorik gabe» doala dio «nahiz eta txapelketan bertze tentsio bat nabari den. Gaiak bertze modu batean landu behar dira. Nerbioak kontrolatu eta nire bertsokera ateratzen saiatzea da asmoa». Eta posible balitz «gazteak garenok aurrerapauso txiki bat eman eta ea baten bat finalera ailegatzen den».





## EGITARAUA

### Otsailak 22, asteazkena

**Goizean** Irain Eskolan **inauterietako jaialdia**.





### Otsailak 23, ortzeguna

**Goizez** arraultze-arraultze. **Arratsaldean** ikastolan **inauterietako jaialdia**.



### Otsailak 25, larunbata

**Gauez** afariak eta mozorroak.

### Otsailak 26, igandea

**Goiz-arratsaldez** **Goitarrak** baserriz-baserri eta arratsaldean herrian. **17:00ak aldera** **Zakozar ttikiak. Ondoren Zakozar haundiak eta Mairuak. 18:00** dantzaldia plazan.



### Otsailak 27, astelehena

**Goiz-arratsaldez** **Fraindar eta Goitarrak** baserriz-baserri. **Goiz-eguerdian** **Mozorro eta karrozak**. **18:00** dantzaldia plazan.














# Doneztebeko inauteriak


Arozena ostatu · jatetxea
Gosariak bazkariak eta afariak
ongi pasa inauteriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 · Doneztebe

Belarra jatetxea
ONGI PASA INAUTERIAK!
Ameztia zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

BAR TITI DONEZTEBE
ongi pasa inauteriak
Ameztia, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

MENDAUR PENTSUAK
Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
DISTRIBUIDOR DE: Rex · Agroveco
Pentsuak • Ongarriak • Haziak
Oilasko eta oilandak astero ortzeguntan • Kaiolak
Mourges, 20 • 31740 DONEZTEBE
Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 95

IBARBURU
GASOLIOA ETXERA
KALEFAKZIOA
NEKAZARITZA
AUTOMOBILGINTZA
Vicente Arocena Andueza
T. 610 258 595
Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

EDERKI tailerra
CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA
'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
ongi pasa inauteriak!
Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525




## EGITARAUA

### Otsailak 23, ortzeguna

**20:00** Trikipoteoa. **21:00** Afaria Belarra kafetegian.



### Otsailak 24, ortziralea

**09:00** Baserrietan eskea. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian berriz ere elkartu eta Leitzarako bideko tailerrak bisitatuko dituzte.**14:00** Bazkaria Belarra kafetegian. Bazkalondoan musika Modestorekin. **21:00** Kuadrilen afaria.

### Otsailak 25, larunbata

**17:00** Orgen desfilea Aparandik aterata. (Orga eta mozorro hoberenak sarituko dituzte Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak eta Udalak). **22:00** Kuadrilen afaria..





**Miren MARTIN** | Doneztebeko gaztea

# «Gazteek etxera etortzean giro ederra sortzen dute»

## Baserriz-baserri zortzi urtez ibili ondotik, bere etxean hartzen ditu orain eskean dabiltzan gazteak



Bestazalea dela dio Miren Martinek, eta nola ez, ez du bestarako aukera alferrik galtzen inauterietan. Gustukuak dituela onartu digu eta ez hori bakarrik, herriko inauterietatik ez omen luke deus ere aldatuko. Ortziralearekin, baserriz-baserri eskean ibiltzen dira gazteak eta ezaguna du hori Mirenek, zortzi urtez ibilia baita base riz-baserri. Gaur egun, ordea, parrandarako mantalaren ordez, etxeko mantala jantzen du egun horretan, bere etxean hartzen dituelako etxez-etxe dabiltzan gazteak: «gero eta gazte gehiago eta baserri gutxiago zirelako» utzi zion eskean ibiltzeari, eta orduan hasi zen «etxean gosaria ematen. Orain, ortziralearekin etxean gelditzen naiz dena antolatzen». Gainera, horixe omen da inauterietatik gehien gustatzen zaiona: «ortziralean, etxera gosaltzera etortzen direnenean, gazte guztien elkartzeko lekua nire etxea da eta hor sortzen den giroa ederra delako». Beraz, mantalaren helburua edozein dela ere, inauterietako gogoa ez du galdua: «urtero bezala, ilusio berdinarekin jarraitzen dut», dio. Inauterietan zerbait aldatu baldin bada, hori parte-hartzea izan dela uste du: «ttikia nintzenean baino jende gehiagok parte hartzen du otorduetan eta desfilerako karrozak egiten».

### BESTA EGUNEZ ETA GAUEZ

Besta bai, baina lana ere bai. Dena ez da parranda inauterietan. Hala ere, lanari neurria hartzen omen dio: «lana eta besta uztartzen ditut». Eguneko eta gaueko besta «biak» gustuko dituela ere aipatu digu eta gaueko besta noiz arte luzatzen ahal den galdetuta... «gosarira arte», erantzun digu. Hortaz, aurten ere egunez eta gauez ikusiko dugu seguruenik Miren, eta hori bai, mozorrotuta. Aurtengo mozorroa ere prest duela aitortu digu, nahiz eta ez digun aurreratu zein izanen den. Baina gonbitea luzatu du: «orain arte animatu ez direnak parte hartzera gonbidatu nahi ditut». Eta behin animatuta, «ongi pasa inauteriak!».

















# Goizuetako inauteriak















## EGITARAUA

### Otsailak 25, larunbata

**09:00** Karparen montajea. **Ondoren** Hamaiketakoa.

### Otsailak 26, igandea

**17:00** Gaztetxoen zahagi dantza. **18:30** Dantzaldia Irati eta Mariarekin. **21:30** Mozorroen afaria.



### Otsailak 27, astelehena

**08:00** Mozorroen irteera baserrietara. **10:00** Plazaren apaintzea. Gaia: Indio eta bakeroak **Ondoren** konpartsa. **13:30** Ume eta gaztetxoen bazkaria. **14:30** Helduen bazkaria. **14:00-16:30** Tailerrak eta pelikula. **18:00** Txokolatada. **19:00** Plazan dantzaldia irati eta Maialenekin. **19:30** Mozorroen etorrera herrira dultzaineroekin. **22:00** Mozorroen afaria.



### Otsailak 28, asteartea

**09:00** Mozorroen gosaria. **10:00 Mozorroen** eskea herrian. **14:00** Mozorroen bazkaria.



### Martxoak 4, larunbata

**09:00** karparen desmontajea. **12:30** poteoa Igandea txarangarekin. **14:00 Mozorroen bazkaria.** **17:29** poteoa igandea txarangarekin. **23:30** Gaztetxean kontzertuak: Etsaiakeroak + SpaceJam.






## EZKURRA-ERATSUN

**OSPAKIZUNAK** ➜ URTARRILAREN 22 ETA 29AN

# Jubilatuen jaiak ospatu dituzte bi herrietan

Eratsundarrek herrian bertan egin zuten bazkaria eta 29 lagun bildu ziren

**Fernando ETXEBERRIA**

Urtarrilaren 22an egin zuten Ezkurrako jubilatuen urteko jaia. Aspaldiko urteetako ohiturari eutsiz, hildako kideen omenez meza izan zuten eguerdian eta ondotik, Barranka Ostatuan bazkaldu zuten. Aurten, gauza bat dela eta bestea dela (ebakuntzak, gripea eta bestelako eragozpenak) hamabost lagun bakarrik bildu ziren. Argazkilariak ere huts egin zuen eta horregatik ez dago bilkuraren argazkirik.

Eratsungo jubilatuek suerte gehiago izan zuten urtarrilaren 29an. Hauek ere hildakoen omenez egindako mezarekin hasi eta gero herriko lokal batean bildu ziren bazkaltzera eta mus txapelketa jokatzera. Eratsunen ez dago ostaturik eta azken urteetan Ezkurrako Barrankan eginak zituzten hauek ere ospakizunak, baina aurten herrian bertan egiteko aukera izan dute. 29 bazkidek parte hartu zuten, aspaldiko urteetako kopururik handiena.

Bazkalondoan mus txapelketa jokatu zuten eta Migeltxo eta Javier suertatu ziren txapeldun, finalean Emilio eta Jose Luis-i irabazita. Migel eta Juanito hirugarren izan ziren eta *Tolare* eta Calixto laugarren.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
29 lagun bildu ziren Eratsungo jaian, aspaldiko urteetako kopururik handiena.

### EZKURRAKO INAUTERIAK MARTXOAREN 4AN

Azkenean, martxoaren 4rako iragarri dituzte Ezkurrako inauteriak eta programaren berri aurrerago emango dute. Oraingoz, musika eta bertsolari pare bat ekartzeko lanean ari dira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Mus txapelketan ere gustura aritu ziren jubilatuak.



# LEITZA

**IZENDAPENA ➜** UEMAREN SAILKAPENEAN

## Euskararen erabileraren maila gorenera iritsi da Udala

Hirigintza zerbitzua euskaratu ondoren

**JM BARRIOLA**

UEMAren sailkapenean maila gorenera heldu direla nabarmendu eta emandako pausoak azaltzeko agerraldia egin zuten Leitza eta Goizuetako alkate, euskara zinegotzi eta teknikariek. Nabarmendu zutenez, Leitzako Udala UEMAko kide bihurtu ondotik agiriak, txostenak, ebazpenak, aktak eta gainerakoak gazteleraz izatetik erabat euskaraz izatera pasatu dira. Udaletik eskaintzen diren zerbitzuak euskaraz eman ahal izateko lan asko egin da eta Hirigintza zerbitzua euskaratzea izan da emandako azken urratsa.Zerbitzu hori euskaratzeak eraman ditu UEMAren sailkapenaren arabera tontorrera.

### FLASH

**Erreketa kontrolatuen plangintza martxan**

Momentuz Baztarla, Arremia eta Urkizu aldean erre dira larreak eta eguraldiaren arabera egingo dira besteak. Urtero zein larre zati erre adostu eta baliabideak martxan jartzen dira ahal den neurrian mendiak garbitu eta arriskuak ekiditeko.




UTZITAKO ARGAZKIAK

### Ioteriak umorez gainezka!

Larunbatean herriko eskearekin hasi ziren ioteriak eta gaueko parranda luzearen ondotik, gurdi eta kuadrillek hartu zuten herriko kale nagusia. Zaldun ioteko desfilean irudimena izan zen nagusi eta umorea ez dela falta erakutsi zuten beste behin ere. Astelehen-iotean baserri auzoetara zabaldu zen inauteri giroa eskelariekin eta arratsaldean haurren kalejirak eman zion kolorea herriari. Astearte-iotean berriz Erasoteko auzoko eskearen ondotik, arratsean, atsauretuen kalejira izan zen. Garai bateko usadioa berrituz azaldu ziren herritarrak, fanfarreak lagundurik, mozorrotutako asto eta guzti. Kalejirari bukaera dotorea emateko, garai bateko lastargiekin eta ote-erratzekin su-ikuskizun polita egin zuten atsauretutakoek.



ARGAZKIA: KONTSUMO TALDEA

### Kontsumo taldea

LeitzEKO Kontsumo Taldeak batzarra burutu zuen ilbeltzaren 28an. Bertan bildu zirenek hurrengo hilabeteetako plangitza landu eta aurrekontuaren inguruan hitz egin zuten. Urteko egutegiaren zirriborro bat ere osatu zuten. Herriko 55 familiak osatzen dute Kontsumo Taldea eta pixkana hazten joan eta beraien filosofia eta ekintzak herrian zabaltzea litzateke helburua.



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

### Interesa piztu du 60 urtetik gorako emakumeei zuzendutako ahalduntze tailerrak

Hamar emakumek parte hartu dute Leitzaldeko Berdintasun Batzordeak antolatutako tailerretan. Bi orduko lau saio egin dituzte eta emakumeak izan dira protagonista, ondorio nagusiak beraien esperientziatik ateraz. Familia eta zaintza, osasuna edo emozioak izan dira aztertutako gaiak eta arlo teorikoa zein praktikoa landu dituzte. *Gozatzeko ordua iritsi zaigu* lelopean norbere ongizatea bilatzeko eskubidearen aldarrikapena egin dute, ezetz esaten ikasiz edo errudun sentsazioari aurre eginez.

# ARESO

**OSPAKIZUNAK** ➜ URTARRILAREN 27 ETA 28AN

## Giro bikaina izan da inauteritetan

**Juana Mari SAIZAR**

Urtero bezala ostiralean umeen eskolako jaialdiarekin eman genien hasiera inauteriei. Aurten joaldunez jantzi ziren eta joare soinuekin herri guztia martxan jarri zuten.Ondoren trikitixa eta pandero soinuekin herrian barna eskea egin zuten Lagun Artekoek, hainbat herritarrek lagunduta eta eguna bukatzeko Pake Toki elkartean afaria egin zuten gazteek.

Larunbatean goizean goiz suziri soinuekin esnatzeko deia jaso ondoren Lagun Arteko kideek gosaldu eta baserrietako eskeari ekin zioten.11:00etan herriko plazan Gure Esku Dagok antolatuta mural margoketa egin zen eta arratsaldean horixe erabili zuten argazkiak atera eta bidenabar sinadurak biltzeko. 17:30tan kalejira koloretsuari eman zioten hasiera. Guraso Elkartekoek San Fermin festa ekarri zuten herrira eta zezen jaialdia ikusteko aukera ere izan zen plazan, herrian torero bikainak ditugula erakutsiz!



ARGAZKIAK: ZURINE GOIKOETXEA, ANA GONI ETA JAIONE OLAZABAL

Haur, gazte zein helduek inauterietako bi egunak ongi aprobetxatu zituzten.

Ondoren trikitilariek dantzaldi ederra eskaini zuten plazan, hotzak kentzeko modukoa eta inauteriei bukaera emateko herri afaria izan zen Pake Toki elkartean. Herritar asko bildu ziren eta mozorro lehiaketa egin eta dantzan eta festan gozatu zuten goizaldera arte.

### *Ba al zenekien ?*

**Udalak herriko argiteria guztia aldatu duela. LED argiak jarri dituzte. Aldaketa hau eginda %70 jeitsiko da kontsumoa.**



# GOIZUETA-LEITZA-ARESO

GIZARTEA ➜ URTARRILAREN 31N AGERRALDIA

## UEMAko tontorrera ailegatu dira hiru udalak




UTZIITAKO ARGAZKIA

UEMA eta Goizueta eta Leitzako udal ordezkariak, urtarrilaren 31ko agerraldian.

### Euskararen erabileraren maila gorena

**TTIPI-TTAPA**

Udal baten euskararen erabileraren egoera aztertzeko, udalaren sail guztiak hartzen ditu kontuan UEMAk, eta alorrez alorreko adierazleak jaso ohi ditu, galdetegi bidez. Jasotako erantzunen arabera behin diagnostikoa osatuta, UEMAk bere baitan hartzen dituen udalak lau multzotan sailkatuta ditu, euskararen erabileraren mailari dagokionez.

Leitzako eta Goizuetako udalak *Gorabidean* mailan zeuden, baina azken hilabeteotan egindako lanaren eta hartutako konpromisoen ondotik, 'tontorrean' mailara igotzea lortu dute, urtarrilaren 31n Leitzan egindako agerraldian aipatu zutenez.

Mikel Zabaleta Leitzako alkateak nabarmendu zuenez, «urte askotan lan handia egin da, Udaletik eskaintzen diren zerbitzuak euskaraz eman ahal izateko. Oraingo Udal taldeak lan horren emaitza jaso eta aurrera jarraitzea erabaki zuen, besteak beste, Hirigintza zerbitzua euskaratuz. Zerbitzu hori euskaratzeak, UEMAren sailkapenaren arabera tontorrera eraman gaitu. Albiste pozgarria dela iruditzen zaigu, izan ere, honek esan nahi du Leitzako Udalak hemendik aurrera herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak euskaraz eman ahal izango dizkiela».

Zuriñe Lujanbio Goizuetako euskara zinegotziak adierazi zuenez, berriz, «euskararen arnasgune garen udalerriok euskarak zonaldean duen osasun ona bermatzeko ardura dugu». Zentzu horretan, administrazioa erabat euskalduntzeko hartu dituzten neurriak nabarmendu zituen. Bereziki «Goizuetako Udalaren barne funtzionamenduan erabilitako ekipoetako programak euskaraz erabiltzeko erabakiak eraman du tontorrera». Lujanbiok nabarmendu zuenez, «egunez egun euskaraz bizi ahal izateko eta administrazioa euskalduntzeko urte askotan lanean aritu diren herritar, ordezkari politiko eta UEMAko kideen meritua ere bada».

Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko euskara teknikaria den Kristina Urrutiak zehaztu zuenez, duela 24 urte sartu ziren UEMAn Leitza eta Goizueta eta denbora honetan agiriak, txostenak, ebazpenak, aktak eta gainerakoak gazteleraz izatetik erabat euskaraz izatera pasatu dira. «Zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo» euskarak lortutako espazioari eustea erronka izango dela adierazi zuen Urrutiak. Dena dela, eskualdeko hiru udalak, Areso barne, orain *tontorrean* daudela gogoratu zuen.



ARGAZKIA: MIREN TERESE UITZI

### Xumar Bakero eta Fernando Goia Nafarroako finalera

Urtarrilaren 21ean zen Umore Ona elkartean, Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruan, Goizuetako kanporaketa; Guztira 8 bikote aritu ziren lehian, eskualdeko finalera pasatzeko, baina Xumar Bakero eta Fernando Goia, *Pollo*, izan ziren txapeldunak. Gertu izan zituzten Fermin Narbarte eta Mertxe Uitzi; bigarren egin zuten. Otsailaren 25ean, Iruñean jokatuko dute Nafarroako finala Xumarrek eta Pollok, Euskal Herriko finalera pasatzeko asmoz.

## FLASH

### 'Goizuetarrok ere hemen gaude' festa

Ekainean herri galdeketa egiteko beharrezko sinadura bilketari bukaera emateko otsailaren 11n festa antolatu dute. Larunbat arratsaldeko 5etan hasita ikastolako atarian mural margoketa umeentzat, eskulanak, txokolatada, dantzaldia, argazki murala eta sinadura bilketa eginen dute eta 21:30ean herri afaria Umore Onan. Txartelak Amaia kafetegian salgai daude, 15 eurotan.

### Udal aurrekontua onartua

Urtarrileko plenoan onartu dute 2017ko udal aurrekontua. Sarrerak 878.940 eurokoak izanen dira eta gastuak 715.074 eurokoak. Udalak aurrekontuan jaso ez baditu ere, beste zenbait inbertsio egiteko asmoa du aurrekontu modifikazio bidez.

### Udal aurrekontua onartua

Otsailaren 11n, larunbatean 11:00tan Herri Batzarra egingo du udalak. Landuko diren gaiak, Artikutza eta 2017ko aurrekontuak, besteen artean.

**UDALA ➜** URTARRILAREN 26KO BATZARREAN

# Aroztegiaren jarraipena egiteko udal batzordea osatu dute

EH Bilduren ustez, Geroa Bairen proposamena «itxurakeria hutsa da, informazioa eta ardura Iruñean baitaude»

**TTIPI-TTAPA**

Balleko Etxeko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran Geroa Baik Aroztegiko proiektuaren jarraipena egiteko udal batzordea sortzea proposatu zuen. Proposamen horren alde agertu zen udal batzarra, Geroa Baiko bi zinegotziek ez ezik, UPNko lauak, Baztan Auzolanean-ekoak eta Baztango Ezkerrako bi zinegotziek baiezko bozka eman baitzuten. EH Bilduko lau zinegotziak kontra agertu ziren.

Proposamena «itxurakeria hutsa da», EHBilduren ustez. Hasteko, «Baztango konpetentzien gainetik Nafarroako Gobernuak baimendu eta bere gain hartu duen proiektua da. Hortaz, gisako batzordea Nafarroako Gobernuak sortu beharko luke. Zeren bertzenaz, irudi luke, proiektuaren gestioa Udalak duela, eta hori, gezurra da. Informazio eta ardura guztia Gobernuak du» dio EH Bilduk.

Proiektu honen «legitimitate sozial falta» ere azpimarratu du EH Bilduk. Lekarozen egin diren herri-galdeketa guztietan, herritarrak proiektuaren aurka agertu dira eta herriko alkatea hautatzeko azken hauteskundeetan, «proiektuaren aurkako hautagaiak aise irabazi du». Modu berean, 2016ko ereiaroan Baztanen egindako herri-galdeketan, proiektuaren aurkako jarrera nagusitu zen. «Proiektu hau, bere horretan gehiago aitzinatu gabe, utzi beharra dago», uste du EH Bilduk.

Udalez gaindiko izendapen hau iruzur hutsa dela azpimarratu du EH Bilduk: «Baztango udalerriaren izaera bateratuak, udaletxeari, herri baten gaitasuna gainditzen duten proiektuak kudeatzeko ahalmena ematen dio. Lekarozek ezinen baluke, Baztan horretarako dago, ez Nafarroako Gobernua».

Azkenik, EH Bilduri guztiz onartezina iduritzen zaio «jazarpen judizialean ari den enpresa sustatzaileko ordezkaria batzordean egotea. Herritarrak, hautetsi ohiak eta oraingo hautetsiak isilaratzeko helburuarekin salaketak eta auzibideak abiatu dituen eta herritarren iritzia errespetatzen ez duen enpresaren tokia ez da udaleko batzorde bat».

Laburbilduz batzorde honekin Geroa Baik bere burua zuritzeaz gain, proiektua legitimizatu nahi duela uste du EH Bilduk. «Hortaz batzorde horren eraketari ez erran diogu. Bidenabar, hamaikagarren aldiz, Aroztegiako gaian herritarren errana errespetatzeko eskatuz».

**GEROA BAIK BABES ZABALA BALORATU DU**

Baztango Geroa Baik, bere aldetik, era positiboan baloratu du Aroztegia proiektuari buruzko berariazko batzorde bat sortzeko bere proposamenean lortutako udal babes zabala, horrela udalean ordezkaritza duen talde orok proiektuaren garapenari buruzko informazio zuzena izan dezan: «Beharrezkoa dela uste dugu, bere lehen fasean obrak aurki hasiko baitira, bai eta proiektuaren konplexutasunaren aurrean, alor ezberdinen arteko lankidetzan garatzen ari baita».

Mozioan, batzordea bi hilabetez behin biltzea proposatu zuen Baztanen Geroa Bairen udal taldeak, «edozein udal taldek edo batzordeko edozein kidek eskatuta bilera deitzeko aukera izanik».

Modu berean, onartutako mozioaren arabera, batzorde hori udal talde guztietako ordezkariek osatuko dute, bai eta udal arkitektoak, Lekarozko alkateak, Nafarroako Gobernuak izendatutako ordezkari batek eta sustatzailearen aldetik bertze ordezkari batek.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Gartzaingo Berekotxeko bordako ardiak hiru bildots**

Gartzaingo Berekotxeko bordan ardi batek 3 bildots izan zituen eta berak hazten ditu. Arras maite omen ditu hiruak, gainera!









# BAZTAN

**GIZARTEA** ➔ NAFARROAKO GOBERNUAK ENPRESEI

## Esne sektoreak bizi duen egoeraz solasaldia izan dute

### Hazitik Hozie elkarteak eta EHNE sindikatuak antolaturik



UTZIITAKO ARGAZKIA

Ikusmina piztu zuen Arizkunenean egindako mahai-inguruaj.

**TTIPI-TTAPA**

Apirilaren 1etik Danonek Nafarroako mendialdeko 7 nekazariri esne gehiagorik bilduko ez diela jakinarazi ondotik -tartean bi baztandar- eta Sorian 20.000 behi buruko esne ustiategia egiteko proiektua dagoela jakinik, esne sektorearen orainaz eta geroaz gogoeta egiteko Elizondon mahai-inguru jendetsua egin zen ilbeltzaren 28an. Hazitik hoziek eta EHNEk antolaturik Migel Joxe Ariztia nekazari amaiurtarra, Oier Villanueva Nafarroako EHNEren esne sektoreko arduraduna eta Mikel Hiribarren, ELBko koordinatzailea.

Sarreran, mahai-ingurua gidatu zuen Aitor Azkarate aniztarrak esne sektorearen ibilbide historikoaren laburpena egin zuen. 1960. hamarkadan frankismoaren autarkian, mendialdean esnetako behiak hasi zirela aipatuz eta, horrekin, denborarekin aunitz aldatuko zen sektorea. Europako Batasunean sartzearekin, merkatuen zabalkundea eta berregituraketa eman zela jakinarazi zuen Estatuen araberako kuotak paratuz eta sektorearen gainbehera ekarriz. Ariztiak eta Hiribarrenek aipatu zutenez Espainiako Estatuak 6 milioi esne tona ekoizteko baimena du eta Frantziako Estatuak 35 milioi tona. Azkaratek ohartarazi zuen ekoizpen-sariak aldiro goratzen ari direla eta esnearen prezioa berriz jaisten eta, horren ondorioz, nekazarien errenten apaltzea eta jarduneraren itotzea. Ariztiak indarrean den ereduak nekazariak produktibitatera bulkatu dituela salatu zuen «lanbaldintzak gogorrak direla aipatu zuen eta kuoten kentzearekin gaizki zebilen sektorea makurrago ibiliko dela ustiategi handiei atea irekitzen baitzaie». Bide beretik, Oier Villanuevak kuotak kenduz gero botere guztia enpresen eskuetan gelditu dela erran zuen, esnea merkantzia hutsean bihurtuz. Danoneri buruz, orain artio beraiekin hitzarmena izatea bermea zela erran zuen, baina, gaurgero, ez dela hala.

#### «BATZUEI ESNERIK EZ BILDU, BERTZEEI GEHIAGO ESKATU»

Halaber, batzuei esnea ez biltzearekin bat, bertze ustiategi batzuei produkzioa handitzeko eskatu dietela jakinarazi zuen. Mikel Hiribarrenek, bertzalde, Frantziako estatuan ere sektorean estu ibilki dela erran zuen. Alta, batez ere, Picardia alderdian egin nahi zuten 1.000 behi buruko ustiategia geldiarazteko Confederation Paysannek egindako borrokari buruz aritu zen. Frantziako estatuan kontsumitzaileek elikaduraren eta laborantzaren artean nolabaiteko lotura dagoela ulertu dutela erran zuen eta, horregatik, ez dutela 1.000 buruko ustiategiko esnerik erosi nahi. Horren guztiaren ondorioz, Frantziako enpresa esneketariak hango esnerik ez erostea erdietsi dutela aipatu zuen. Modu horretan, galdera-erantzunen tarterat ailegatuta, Danonek esnea biltzetik utziko dituen zazpi nekazarien egoerari aterabidea emateaz aritu ziren. Bertzeren artean, zazpi nekazari horien arazoa sozializatu eta gizarte osoaren arazo bihurtu behar dela aipatu zen, «orain zazpi direnak bihar gehiago izanen baitira». Halaber, mobilizatu beharra aipatu zen enpresen eta Nafarroako Gobernuaren aitzinean indar gehiagorekin solastatu ahal izateko eta, horrela, Mendialdeako ustiategi guztiei esnea bilduko zaiela bermatzeko. Epe ertainera orain arteko eredua aldatu beharraz ere aritu ziren.

## FLASH

### Baztango haraneko historiari buruzko hitzaldi zikloa

Kasino Elkarteak eta Etnografia Museoaren Elkarteak antolatuta, Baztango Haraneko historiari buruzko hitzaldi zikloa abiatuko da otsailaren 10ean. *Baztango ordenantzak: talde-lanaren antolakuntza, antzinako baztandarren landak, abereak eta basoak* solasaldia eskainiko du Jose Maria Imizcoz Beunzak ortziralean 20:00etan Elizondoko Kasinoko ekitaldi aretoan. Sarreran borondatez ematen dena Xauli elkartearen alde izanen dela ohartarazi dute.

### 'Francoren bilobari gutuna' antzezlana Iruritan hilaren 19an

Artedrama-Dejabu-Le Petit Théâtre taldearen eskutik *Francoren bilobari gutuna* antzezlana ikusgai izanen da otsailaren 19an, igande arratsaldeko 7etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Baztango Kultura Batzordeak Nafarroako Gobernuaren 2017-ko Arte eta Kultura programaren laguntzaz antolatutako emanaldian sarrera doan izanen da, lekuak bete arte.

### Bailableak Elizondoko plazan igandean

Baztango Dantzariek eta Elizondoko Gaiteroek, Baztango udalaren laguntzaz antolatuta Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larrain Dantza…) izanen dira otsailaren 12an, igandean 12:45ean Elizondoko plazan.

# metabolic balance

**ITXASO MENDIZABAL** nutrizionista
Tel.: 667 30 88 26



## "Dieta pertsonalizatu baten bidez, gorputzaren ongizate osoa lortzen duen teknika"

Eguneroko elikadura gure osasunaren ardatza da. Horregatik da garrantzitsua norberaren metabolismoari onura edo kaltea eragiten dien elikagaiak zeintzuk diren jakitea. Horixe da **Metabolic balance** metodoaren oinarria. Itxaso Mendizabal nutrizionistaren eskutik iritsi da eskualdera metodo berritzaile hau eta bera da gurean teknika hau eskaintzeko baimena duen bakarra.

Alemanian du jatorria **Metabolic balance metodoak** eta metabolismoaren erregulazioa eta oreka hormonala ditu helburu. Medikuntzak eta nutrizioak elkar hartzen dute; odol analisi batean oinarritzen da teknika, 35 parametro desberdin neurtzen dira eta horrekin batera pazientearen datu pertsonal batzuk ere biltzen dira: pisua, neurriak, elikadura ohiturak, sendagaien erabilera... Horiek guztiak aztertuta, bakoitzarentzat onuragarriak eta kaltegarriak diren elikagaien zerrenda bat osatzen da. Dieta pertsonalizatu horren bidez, gorputzaren ongizatea lortzen da. Elikadura ohitura berriei esker, desorekatuak zeuden hormonak gure gorputzean behar bezala sintetizatzen hasten dira. Eta gorputz barnean egindako aldaketa horrek eragiten du gero, pisua galtzea.

Non?
**Zentru berria**
Santiago, 58
31700 ELIZONDO

**Amaia Estetika Zentroa**
Ameztia | 31740 DONEZTEBE

Ordua hartzeko:
**667308826** Itxaso Mendizabal

### Janarien piramidea




### Zergatik aukeratu METABOLIC BALANCE metodoa?

- Medikuek osatutako nutrizio-plan pertsonalizatua da.
- % 100 naturala, botikarik gabe.
- Oreka-hormonala lortzen da.
- Pisu galera modu osasuntsuan egiten da.
- Toxinak kanporatzen dira.
- Galdutako pisua erraz mantentzen da.
- Kolesterola, hipertentsioa, lotarako arazoak, digestibo arazoak... ere erregulatzen dira.

### BESTE ZERBITZUAK:

Nutrizioan aditua izateaz gain, biomagnetista eta txinatar medikuntzan eta ordenazio posturalean aditua ere bada **Itxaso Mendizabal**. Imanen bidez PHaren oreka eta infekzio fokoak detektatu eta neutralizatzen ditu eta emozioak lantzeko *bach* loreekin eta hirutasun esentziekin ere lan egiten du.

«Gorputz barrenean egiten den aldaketa, kanpoaldean nabaritzen da».



# BAZTAN

**GIZARTEA ➔** BALLEKO ETXEAK NAFARROAKO GOBERNUARI EGINDAKO ESKARIA

## Elizondoko sarrerako zubia egiteko eskatu du Udalak

Mozio berean, Lekarozko herria hilerriarekin lotzeko saihesbidearen gainetik zaldain bat egitea ere eskatu du

**TTIPI-TTAPA**

Urtarrilaren 26an egin zen ohiko osoko bilkuran, Udalak Nafarroako Gobernuari Elizondoko sarrerako zubia egiteko eskatzea erabaki zuen. Mozio berean, Lekarozko herria kanposatuarekin saihesbidearen gainetik zaldain batekin lotzeko eskaera egitea ere onartu zen. Proposamena EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak aurkeztu zuten eta aho batez onartu zen. 2012an Elizondoko saihesbidea ireki zelarik saihesbidetik herrigunerako sarrera Braulio Iriarte karrika meharretik egin zen, jakinik, horrek buruhauste handiak eta arrisku egoerak ekarriko zituela eta behin-behineko aterabidea izanen zela. Ordurako Nafarroako Gobernuak Baztan Berrin gaindi Santiago karrikan barna Elizondorat sartzeko zubia egitea aurreikusi zuen baina oraino ez du pausurik eman. Hala, egoera luzatzen ari dela ikusirik Udalak Nafarroako Gobernuari zubia egiteko eskatzea erabaki zuen.

Modu berean, saihesbidea egin zelarik Lekarozko herria kanposanturako oinezkoen pasabiderik gabe geldituzen. Lekarozko herriak behin baino gehiagotan errepidearen gainetik oinezkoendako zaldaina egitea eskatu izan du, baina ez da egin. Horrela, lekaroztarren aldarrikapena gogoan hartuz, mozio berean Udalak Nafarroako Gobernuari aipatu zaldaina egiteko eskatzea erabaki zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Eskolaz kanpoko liburutegi zerbitzua eskaintzen du ikasturte honetan Elizondoko eskola publikoak

Elizondoko Eskola Publikoko ikasleek Ameli Ipuin Kontalaria ikusiz gozatzeko aukera izan zuten eskolako liburutegian urtarrilaren 23an. Ekintza hau irakurzaletasuna eta liburutegiaren erabilera sustatzea helburua duen egitasmo zabala baten barnean kokatuta dago. Egitasmo honen barne, eskolako orduetan, baita eskolatik kanpoko orduetan ere ekintza desberdinak antolatu dira. Aurten, bertze berrikuntza batzuen artean, eskolaz kanpoko liburutegiko zerbitzua zabaldu da, hezkuntza komunitateko kide guztiendako irekita egonen dena: gurasoendako, aitatxi-amatxiendako baita eskolako ikaslendako ere. Zerbitzu hau posible izan da Eskola eta Guraso Elkartearen arteko elkarlanari esker. Zerbitzuaren finantziazioa Guraso Elkarteak egiten du.

**(H)ILBELTZA ELKARTEAK, TXALAPARTA ARGITALETXEAK ETA UDALAK**

### Literatura beltza sustatzeko (H)ilbeltza beka aurkeztua

**TTIPI-TTAPA**

(H)Ilbeltza elkartearen izenean Elurre Iriartek, Txalaparta argitaletxearen izenean Mikel Sotok eta Baztango udalaren izenean Joseba Otondo alkateak, Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko (H)Ilbeltza beka aurkeztu zuten Elizondon otsailaren 1ean. (H)ilbeltza elkarteko Elurre Iriartek Nobela Beltzaren Astearekin emandako urratsak nabarmendu eta bertze pausu bat emateko unea zela azpimarratu du, «eta urtero euskarazko literatura beltzean ekarpena egitea interesgarria iruditu zaigu».

Udalaren webgunean sariketaren oinarriak argitaratu dira eta nobela edo ipuin beltzen proiektuak postaz edo udaleko erregistroan aurkeztu ahal izanen dira ekainaren 23ra arte. Ondoren erabakiko dute zein proiektu saritu eta irabazleak urte bete izanen du lana burutzeko.

**FLASH**

### Elizondoko Lanbide Eskolan ikastaroa

Erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko ikastaroa antolatu du Elizondoko Lanbide Eskolak, langabetuei eta langileei zuzendua. Lanerako Lanbide Heziketako Erdi mailako zikloaren baliokidea den titulazioa ematen duen ikastaroa martxoaren 8tik ekainaren 23ra eskainiko da, 15:00etatik 20:20era. Apuntatzeko epea otsailean eta martxoan zabalik dago eta Enplegu Portalean, Doneztebeko enplegu agentzian edo Elizondoko Lanbide Eskolan egin daiteke, edo 948 581805 telefonora deituta.

### Aniz-Berroetako hondakinak

Kanpainaren ondorioz familia guztiek beraiek sorturiko zabor organikoa etxeko konposta, auzo konposta edo *zerri bazka* bidez tratatzeko konpromisoa hartzea lortu da, kontenedoreetan bildu beharreko hondakin kopurua aunitz murriztuz. Edukiontzi berdeetan bildutako zaborra erdira murriztu da Anizen eta Berroetan ia heren batera. Edukiontzi berdean agertu diren gai birziklagarrien kopurua berriz erdia izan da bi kasuetan. Ekimena herri gehiagotara hedatzea da orain helburua.



**GIZARTEA** ➜ 2016KO DATUAK

# 120.000 bisitari sartu ziren lezeetan gan den urtean

Horietako 32.000 Sorginen museoan ere sartu ziren

**Josebiñe eta Koro**

Gure herri ttiki huntan jende aunitz etorri zaigu bisitan gan den 2016 urtean. Neurtu dutenez, lezean 120.000 lagun sartu ziren eta horietako 32.000 lagunek Sorginen museoa ere bisitatu zuten.

Gehienak euskaldunak izan dira, baina baita kataluniar eta madrildar franko ere. Aipatzekoa da Japonia eta Indiatik ere etorri zaizkigula.

Jendeak lezea ikustea nahiago badu ere, museoa ezagutzen dutenak arras kontent ateratzen dira, sorginei eta inkisizioari buruz ikuspuntu guztiz ezberdin bat erakusten baitu.

## Atxuria mendi taldeak prest du urteko ateraldi egutegia

Urtero bezala, Atxuria mendi taldeak Lesakako San Anton ermitara ganez hasi ditu urteko ibilaldiak.

Hortik aitzina, horrela antolatu dute 2017rako egutegia:

**Otsailean:** Sunbila-Bertiz-Doneztebe.
**Martxoan:** Urdazubi-Zugarramurdi.
**Apirilean:** Baztango ermitak.
**Maiatzean:** Izpegi-Auza.
**Ekainean:** Xareta / Irailan: Bera-Igantzi.
**Urrian:** Iruñeko itzulia.
**Azaroan:** San Martzial.
**Abenduan:** Aiako Harriak.

Usadioari eutsiz, hilabeteko laugarren igandean, goizeko 8etan izanen dute hitzordua herriko mendizaleek eta animatu!



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Atxuria mendia, Alkerdi auzotik ikusita.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Atxuria mendi taldeko aspaldi-aspaldiko ibilaldi bat, Lezetako-bordako bidean.



# URDAZUBI

**GIZARTE** ➜ AROZTEGI ZAHARRA BIRMOLDATZEKO ONARTUA ZUEN

## 50.000 euroko laguntza ukatu dio Nafarroako Gobernuak Udalari

### Aroztegia botatzerakoan ez zela udal araudia errespetatu dio

**Iñigo IMAZ**

Nafarroako Gobernuak komentuko aroztegi zaharra birmoldatzeko 50.000 euroko diru laguntza onartu zuen 2013an, Udalak Garalur agentziari aurkeztu proiektua ontzat hartuz. Aroztegi zaharra birmoldatu beharrean, Udalak eraikina bota eta etxe berri bat eraiki zuen, aroztegiaren nahiz garai bateko neberaren zolak okupatuz. Solairu bakarra beharrean, Kultur Etxe berriak bi zituen. Proiektu berriak polemika sortu zuen herrian, hauteskundeen atarian.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Aroztegi zaharra birmoldatu beharrean, eraikina bota egin zuten.

2015eko ekainaren 10ean, Guardia Zibilak salaketa egin zuen Herriko Etxearen kontra, eta salaketaren ondorioz, Kantauriko Ur Konfederazioak eta Bianako Printzeak, Nafarroako Gobernuaren Kultura Sailaren izenean, espedienteak ireki zizkioten Udalari. Hortaz, Udalak diru-laguntza jaso nahi izan zuenean, Nafarroako Gobernuaren ezezkoa jaso zuen, Bianako Printzearen txostenaren ondorioak ezagutu bitartean. Honek 2015eko azaroaren 4an aurkeztu zuen bere txostena, onartuak ziren 50.000 euroak ez ordaintzeko argudioak emanez. Txostenak dioenez, «Urdazubiko Udalak Nafarroako Kultur Ondarearen Planaren parte den eraikin baten kontrako afekzioa eragin du Udalak berak eraiki duen etxe berriak».

2016ko apirilean, Santiago Villares alkateak, Gobernuari berriro eskatu zion 50.000 euroko diru-laguntza hori, baina, erantzuna ezezkoa izan zen berriro. Gobernuaren erranetan, diru laguntzak jasotzeko baldintzen artean, udalak errespetatu ez duen bat dago: Udal Araudia errespetatzea. Nafarroako Gobernuaren iritziz, alkateak ezin dio errurik bota Bianako Printzeari zein Nafarroako Gobernuari. Gobernuak dioenez, udal arkitektuen ardura da Udal Plana bete eta betearaztea. Gainera, kasu honetan, eraikin berriaren proiektua eta eraikin berriaren gaineko informe teknikoa, arkitektu berdintsuek egin dute Urdazubiko eliza kaltetu dutelarik.

**URDAZUBI-ZUGARRAMURDI**

## Eskolako Guraso Elkartea pozik

**Iñigo IMAZ**

Urdazubiko udalaren ilbeltzaren 27ko batzarrean herriko eskola publikoan ikasten duten ikasleen gurasoei diru-laguntza ematea onartu zuten, Azkar zein Urdazubi Elgarrekin taldeko zinegotziek. Urdazubiko 32 ikasle eta Baztango bertze bi ikasleren gurasoek 30 euroko diru laguntza jasoko dute aurten. Guztira 1.020 euroko diru laguntza. Hortaz aparte, Gobernuak, Zugarramurdin, Guraso Elkarteko kideek auzolanean eraiki zuten jangelari diru-laguntza eman dio. Rakel sukaldariak prestatzen dituen menu bakoitzak eguneko 3 euroko diru-laguntza izanen du. Hortaz, poztekoarrazoiak badituzte aurten gurasoek. Akitzeko, Guraso Elkartetik jakinarazi dute urteroko ekimenekin segitzeko asmoa dutela, eta herrietako enpresa eta partikularrengandik jasotzen duten laguntza eskertu nahi dute.






# SARA

OSPAKIZUNAK ➜ OTSAILAREN 17AN XOKOBIAN

## Sustrai Colina eta Jon Maia presoen aldeko bertso afarian kantari




ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sustrai Colina eta Jon Maia kantari, bertze saio batean.

Afarirako txartelak 20 eurotan salgai daude

Joana GERENDIAIN

Heldu den otsailaren 17an, ortzirale gauez, presoen aldeko bertso afaria eginen da Xokobia etxean. Gaualdi horretan Lapurdiko Sustrai Colina eta Gipuzkoako Jon Maia bertsolariak entzuten ahalko dira. Izena emateko 0658519439 edo 0621341685 zenbakietara deitu behar da, afarirako txartela 20 eurotan da.

### Udako lanak

Sasoina igerilekuan, lezeetan, zerbitzu teknikoan edo aisialdi zentroan lan egin nahi dutenentzat kandidatura fitxa bete behar da eta martxoaren 31 aitzin Herriko Etxera itzuli. Fitxa Herriko Etxeko web gunean (*www.mairiede-sare.fr*) deskargatzen ahal da edo zuzenki galdegiten ahal da herriko etxean. Baldintza bakarra: 17 urteak eginak izan behar dira uztailaren 1eko.

### Kirol emaitzak

Eskubaloian, urtarrilaren 21ean, Sarako Urtxintxak taldeko 11 urtez azpikoek 9-8 irabazi zuten, baina bertze ekipa guziek galdu egin zuten: 13 urtez azpikoek 24-23, 18 urtez azpikoek 20-15, senior neskek 26-22 eta mutikoek 19-11.

Urtarrilaren 28an emaitzak hobexeagoak izan ziren: 13 urtez azpikoek 20-19 irabazi zuten, 15 urtez azpikoek ere 17-12, 18 urtez azpikoek, aldiz, galdu zuten 17-15.

Errugbian, basurdeek 36-10 galdu dute Mendikotarren kontra.

> **Ba al zenekien ?**
> **Otsailaren 25 eta 26an izanen direla aurten inauteriak. Hurrengo alean emanen dugu egitarauaren berri zehatzagoa.**

# URDAZUBI

NAFARROAKO GOBERNUAK

## Alkerdiko harrobiko langileekin lanerako prestakuntza-ibilbide bat adostu du

Nafar Lansareak zonaldeko udalekin lanmunduratzeko izan daitezkeen bideak ebaluatuko ditu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Alkerdiko harrobiko itxierak kaltetutako langileekin enplegurako prestakuntza-ibilbide bat egitea adostu du; haren barnean, birgaitzera edo lanbide-eguneratzera bideratutako proposamenak sartuko dira, Nafar Lansareko baliabideen bidez, edo Lanbide Heziketakoak (Hezkuntza Departamentua). Gainera, proposamenaren barnean honako hau sartzen da: zonaldeko udalekin langile horiek lan-munduratzeko izan daitezkeen bideak elkarrekin aztertzea.

Enplegu-erregulazioko espedienteak eta meatzeko jarduera eteteak 17 pertsonen kontratuak bukatzea ekarri du, eta haietatik 14 langabezian daude.

Ilbeltzaren 18an Donezteben egindako bileran, Garapen Ekonomikorako eta Eskubide Sozialetako lehendakariordetzetako ordezkariek parte hartu zuten, bai eta Hezkuntzako Departamentukoak ere, Nafar Lansareko zuzendari kudeatzaile Paz Fernandez eta departamentu horretako LH Zerbitzuko zuzendari Esther Monterrubio buru zirela; haiez gain, Urdazubiko alkate Santiago Villaresek eta langileen sindikatuetako ordezkariek (LAB) ere esku hartu dute.

Doneztebeko enplegu-agentziaren bidez, langile bakoitzaren egoeraren banakako diagnostiko bat egingo da, eta bertan, haren adina, lan-profila, prestakuntza, enplegu berri bat emateko beharrak eta abar aintzat hartuko dira.

Diagnostiko horren arabera, ibilbide pertsonalizatu bat zehaztuko da, eta haren barnean bakarkakoak izan ahalko diren prestakuntza-ekintzak sartuko dira, eskaintza estandarrean sartutakoak, edo taldekakoak, langilehorientzako berariaz sortutakoak, baldin eta profilak eta beharrak aztertu ondoren, hala egitea eskatzen bada.




ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 07-1.
31770 LESAKA
Tel.: 948635458
whatsapp: 744 484361
info@ttipi.eus



## Josetxo Olaetxea Altzugarai

**Lesakan hil zen, 2017ko urtarrilaren 27an**

Aurpegi serioko
bromazaleena,
etxeko irakasle
buru azkarrena.
Hitzen bisturi fina,
umeen gozamena.
Gureganatu dugu
zuk zenekiena
gure barrutik inoiz
joanen ez dena.

Senideak, ilobak eta
gainerako ahaideak eta lagunak.
Familiak Berako zahar etxeko langileak
eskertu nahi ditu.



## Antonia GOLDARAZENA OTEGI

**Lesakan, 2013ko otsailaren 16an**

**IV. URTEMUGA**

*Ama zenbat egin duzun gugatik*
*orain ere laguntzen ari zara zerutik-*
*zutaz oroitzean negarra*
*heldu zait bi begietatik*
*Mila esker Antxoni, bihotz bihotzetik.*

**BESARKADA BAT ZURI ETA BESTE BAT ARANTXARI**
**AITA ETA ANAIAREN PARTETIK**
**MAITE ZAITUGU**




Erratzun hil zen
2017ko urtarrilaren 28an, 53 urterekin

*Egin duzun lanaren fruituak*
*luzaroan iraunen du bizirik,*
*esker mile zure borondateagatik*
*eta kooperatibaren alde egindako esfortzuengatik*

**BAZTANDARRA, S. COOP.**




| Extefana | Martzel |
|---|---|
| HARDOY GURRUTXAGA | HARDOY GURRUTXAGA |
| 1925.10.4 - 2014.12.5 | 1932.05.31 - 2017.01.11 |

**URDAZUBI**

Izoba eta osaba maiteak,
Urrundu zaizte ni gandik
Baina ez nere bihotzetik.
Zuek erakutsitako maitasunezko bidea
Segitu nahi dut, egun batez,
Berriz elkartuko garelako esperantzarekin
M.H.

«Betiereko zoriona, heieri otoi eman Jauna
Betiko argi zabalean, zure argiak argi ditzan»



## MICHEL SEGURE

**I. URTEURRENA**

Mundu hontatik joan ezkero
Bizi oi bagira nekez
Gogoan zaitugu egunero
Gure oroitzapenen bidez
Senar, aitatxi
Aita ta lagun
Lilluragarria zinez
Gizon haundia zinen gorputzez
Gizon haundia bihotzez

Zure Armuako lagunak

## JOSE ANTONIO URRUTIA ETXEBERRIA

Haurra zinenean jostatzea
aunitz gustatzen zitzaizun.
Gazte garaian, denok bezala,
besta maite zenuen.
Aspaldítik, nekazaritza zen
zure ametsa,
familia bat hazi duzu eta
hortan zoriontsu bizi izan zara.

Agur eta musu bero bat
**Unai, Oiher** eta **Manttoni**ren partez.
*Eskermila aunitz.*

## EZKONTZAK

**Alberto Hernandez Rodriguez** eta **Marta Zubiria Leiza**, Donostia eta Lesakakoa, urtarrilaren 27an.
**Ander Mariezkurrena Salaberri** eta **Berezi Arrieta Saizar**, Oronoz-Mugairikoa eta Sunbillakoa, urtarrilaren 21ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Enetz Nieto Balerdi**, Alegikoa eta Aresokoa, abenduaren 24an.
**Izaro De la Fuente Mugika**, Berakoa. abenduaren 25ean.
**Izaro Ezkurra Mutuberria**, Doneztebekoa, urtarrilaren 14an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Serapia Aldabe Mitxeo**, Oizkoa, urtarrilaren 19an, 94 urte.
**Urbana Vicente Irigoien**, Elizondokoa, urtarrilaren 19an, 85 urte.
**Teresa Mariezkurrena Irazoki**, Berakoa, urtarrilaren 19an, 89 urte.
**Jose Antonio Apezetxea Zubiri**, Goizuetakoa, urtarrilaren 22an, 88 urte.
**Jose Miguel Iñarrea Bikondo**, Erratzukoa, urtarrilaren 22an, 85 urte.
**Jose Joaquin Aioroa Fagoaga *Oxokin***, Iturengoa, urtarrilaren 24an, 85 urte.
**Jose Luis Mitxelena Petrikorena**, Saldiaskoa, urtarrilaren 23an, 64 urte.
**Juan Jose Galzagorri Perugorria**, Sunbillakoa, urtarrilaren 25ean, 92 urte.
**Angel Mario Bango Garcia**, Lesakakoa, urtarrilaren 25ean, 68 urte.
**Josetxo Olaetxea Altzugarai**, Lesakakoa, urtarrilaren 27an, 67 urte.
**Jose Antonio Urrutia Etxeberria**, Erratzukoa, urtarrilaren 28an, 53 urte.
**Natividad Otegi Garate**, Sunbillakoa, urtarrilaren 29an, 83 urte.
**Martin Labaien Urkiola**, Leitzakoa, urtarrilaren 30ean, 89 urte.
**Maritxu Oteiza Lekaroz**, Elizondokoa, urtarrilaren 30ean, 85 urte.
**François Aguerre**, Sarakoa, urtarrilaren 15ean, 81 urte.
**Pakita Maia Ariztia**, Urdazubikoa, otsailaren 1ean, 85 urte.









Sortzez mexikarra da Bittori Juanikotena (Cancun, 1991) baina lotura estua du eskualdearekin. Errekako Triatoli taldearekin aritzen da lehian eta berriki izan da txapeldunorde Espainiako iraupen luzeko txapelketan. Gainera aita baztandarra izaki, aunitzetan etortzen dira Elizondora bisitan. Duela zazpi urte hasi zen triatloian eta geroztik egunez egun hobetzea du helburu eta badaki «esfortzua» dela emaitzen sinonimoa. Aurre-denboraldia abiatu du eta Tokioko Olinpiar jokoetan jarria du hurrengo jo-muga.

**Bittori JUANIKOTENA MADRIGAL** | Mexikoko triatloilaria

# «Hemen ez dago formula sekreturik, esfortzua, ahalegina bertzerik ez»

**Eneritz IRAOLA** |

Hemezortzi urte bete zituenean eman zion hasiera «abentura handia» bezala definitzen duen bideari. Igeriketan aritzetik hiru diziplina aldi berean entrenatzera igaro zen «hasieran ez nekien nola erantzunen zuen nire gorputzak, nola moldatuko nintzen hiru diziplinak aldi berean entrenatzeko». Gorputza baina, «uste baino errazago ohitu» zitzaion eta entrenatzen hasi eta gutira izan zuen lehenbiziko erronka «Cancunen jokatzen zen 70.3 Iroman proban izena ematea erabaki nuen».

Ilusioak beldurrei gain hartu eta «1900 metro igerian, 90 km bizikletan eta 21 km lasterka egin nituen. Ez nuen esperientziarik baina helmugara iristeko gogor borrokatzea zer zen banekien». Lehenbiziko norgehiagoka hartan Clearwater-en jokatzekoa zen mundialerako sailkatzea lortu zuen eta han Cancunen egindako denbora hobetu zuen. Horixe zen triatloira lotzeko behar zuen azken bultzada «emaitza horiek motibatu eta gogorrago hasi nintzen entrenatzen».

Zazpi urteren ondotik triatloia bere bizitzaren parte bihurtu dela dio «ni naizenaren zati handi bat da». Kirol erraza ez dela aitortu digu eta bidean zailtasunak izan dituela «baina oztopoetatik ikasi egin dut eta zaildu egin naiz, ametsak lortzeko indarra eman didate».

## LORPEN BAKOITZA OSPATUZ

Emaitza onak lortzeko «denbora eskaini behar zaio. Hemen ez dago formula sekreturik, esfortzua, ahalegina bertzerik ez. Entrenatu, saiatu... Irabazteko gogor lehiatu behar da. Lehiatzen ari zarelarik sufritu egiten da eta azkenean, sufrimendua hobekien daramana da helmugara lehenbiziko iristen dena». Horregatik ospatzen du igarotako helmuga eta irabazitako garaikur bakoitza «lorpen guztiek baita ttikienek ere, gustura sentiarazten naute, egindako lanaren emaitza dela dakidalako. Nik lortu dudan zerbait, nire hanka, beso, buru eta bihotzari esker. Behin eta berriz errepikatu eta nekatzen ez zaituen sentimendua da hori». Bai baitaki, lehia bakoitzaren ondotik erronka berri bat datorrela «gogorragoa, gehiago betetzen zaituena».

## ENTRENAMENDU ZORROTZA

Entrenatzaileak egunero bidaltzen dio egin beharreko entrenamendua «5 eta 6 ordu artean entrenatzen ditut egunean». Eta Baztanen dagoenean ere «errepidean entrenatzeko probesten dut. Mendiek duten kolore berde bizia, malda gogorrak... gustuko ditut». Aurre-denboraldia prestatzen ari da orain eta 2017rako helburuen artean, Konanen (Hawain) ospatzen den Iromaneko mundialera joatea dago. Eta etorkizunean ere, gustuko duena egiten segi nahi luke, «triatleta profesionala izatera iristeko lanean segi nahi dut. Eta zergatik ez amestu 2020an Tokion jokatuko diren Olinpiar Jokoetan lehiatzearekin?».

**LEHIA GOGORRA**

**«Irabazteko gogor lehiatu behar da. Lehiatzen ari zarelarik sufritu egiten da eta azkenean sufrimendua hobekien daramana da helmugara lehenbiziko iristen dena».**

**LORPEN PERTSONALA**

**«Lorpen guztiek, baita ttikienek ere, gustura sentiarazten naute, egindako lanaren emaitza dela dakidalako. Nik lortu dudan zerbait, nire hanka, beso, buru eta bihotzari esker».**




UTZITAKO ARGAZKIA

Bittori Juanikotena triatloilari gaztea.

**PILOTA ➜** OTSAILAREN 18AN JOKATUKO DUTE FINALA IRURITAKO ARANABIA PILOTALEKUAN

# Azken txanpan sartua da XVII. Paxaka txapelketa

Zortzi hirukote ari dira eta finalerdiak larunbat honetan jokatuko dituzte



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Iruritako Aranabia pilotalekuan ari dira jokatzen paxaka txapelketa.

**TTIPI-TTAPA**

Zortzi hirukote ari dira Laxoa Elkarteak antolatutako Baztan-Errekako XVII. paxaka txapelketan. Lehenbiziko faseko sailkapenaren arabera final laurdenetako partidak jokatzekoak zituzten otsailaren 4an. Otsailaren 11n finalerdiak jokatuko dituzte eta finala otsailaren 18an. Partida guztiak Iruritako Aranabia pilotalekuan. A multzoan, honela gelditu da sailkapena: 1. Mikel Ballarena, Cesar Iñarrea eta Mitxel Etxenike; 2. Iñaki Etxandi, Egoitz Prim eta Joxe Itoiz; 3. Joseba Urtasun, Xabi Ripa eta Eneko Antxorena; eta 4. Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste eta Iban Santesteban.

B multzoan, horrela gelditu da sailkapena: 1. Oscar Urrutia, Juan Mari Maia eta Miguel A. Iñarrea; 2. Manu Irigoien, Guillermo Etxenike eta Kaiet Itoiz; 3. Migel Etxandi, Garikoitz Antxorena eta Gorka Urtasun; eta 4. Xabi Barberena, Mattin Legarrea eta Joxe Mari Salaburu.

**ESKU PILOTA**

## XXVII. Ezkurra Memorialean izen emateko epea akitzear

**TTIPI-TTAPA**

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako 27. Josetxo Ezkurra Memoriala pilota txapelketan izen-emateko epea otsailaren 12an akituko da. Eskuz banaka eta lau eta erdiaren barrenean jokatuko dute, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariek. Horretarako, *salaae@gmail.com* helbidera idatzi behar da. Txapelketa martxoaren 12an hasiko da eta maiatzean edo ekainean jokatuko dituzte finalak. Maila guztietan txapelketa irekia izanen da, kanporaketa bidez jokatua.

**ERREMONTEA ➜** URRiZAK URREZKO ERREMONTEA

# Xanti Uterga izan zen iazko erremontelari erregularrena

Ezkurra II eta Ionek irabazi zuten txapelketa azkarra



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES
Urrezko Erremontearen Galan saritutakoak.

**TTIPI-TTAPA**

Urrezko Erremontearen Gala egin zuten urtarrilaren 26an Galarretan. Horren baitan, Oriamendi 2010 enpresak urteko erremontelari onenari ematen dion Urrezko Erremontea Javier Urrizak irabazi zuen, laugarren aldiz. Horretaz gain, urteko erremontelari erregularrenaren saria Xanti Uterga doneztebarrak eskuratu zuen, eta Galarretan bertan jokatutako txapelketa azkarra Josetxo Ezkurra II doneztebarrak eta Ionek irabazi zuten.

**ERREGULARTASUNA**

Erregulartasunari dagokionez, partida nagusiak jokatzen dituzten erremontelarien A multzoan Xanti Uterga doneztebarrak jaso du saria. 33,86 puntu eskuratu ditu 65 partidetan (gehieneko puntuazioa 40koa litzateke, partida guztiak irabazita). Horretaz gain, binakako txapelketa irabazi du Endika saldiastarrarekin. B multzoan Xabier Azpiroz izan da irabazle.

# otsailak 9 - 23

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.eus** edo **948 63 54 58**

## Inauteriak



ESKUALDEA | 2017.02

**Mozorro bestak ez du etenik eskualdean**

Asteburu honetan Arantzan ospatuko dituzte inauteriak, eta ondokoan, Igantzik hartuko du lekukoa. Gero etorriko da data ofizialetan izaten diren herrien txanda. Orduan aterako dira zakozarrak, zahagiak...

## Filmak



DONEZTEBE | 2017.02.19

**'Zikoinak' haurrentzako euskarazko filma ikusgai**

Zineuskadi elkarteak sustatzen duen Zinema Euskaraz programari esker, joan den urte hondarrean euskaraz estreinatu zuten *Zikoinak* haurrentzako filma ikusteko aukera izanen da Donezteben.

## Azokak



SARA | 2017.02.

**Sarako merkatua larunbat goizetan frontoian**

Larunbat goizero, 08:00etatik 13:00etara Sarako frontoian elkartzen dira inguruko ekoizleak euren produktuak saltzeko: haragia, gasnak, arrautzak, sagarnoa, eztia, Ezpeletako piperrak, barazkiak...

## Hitzaldiak

ELIZONDO

**Baztango haraneko historiari buruzko hitzaldi zikloa**

**Otsailaren 10ean** 20:00etan Kasinon: *Ba al zenekien lursail guztiak elkartuta eta amankomuneko hesi batek inguratuta zeudela?*.

ARANTZA

**Goienerrekoen hitzaldia**

**Otsailaren 17an** 17:00etan Baskulan.

DONEZTEBE

**Biolentzia sare sozialetan**

**Otsailaren 20an** Susana Manzanedorekin, 15:00etan Mendaur Institutuan.

**Emozio hezkuntza**

**Martxoaren 2an** 14:50ean San Migel eskolan. Hitzaldia haurrak Doneztebeko eskolan dituzten gurasoentzat izanen da.

BERA

**'Endarlatsako gertaerak II. Karlistaldian'**

**Otsailaren 24an** 18:30ean Beralandetan (gaztelaniaz).

## Tailerrak

BERA

**'Light painting'**

**Otsailaren 17an** Herri Liburutegian, 18:00etan.

**'Musikari ttikiak' musika tailerra**

**Martxoaren 17an, 24an, 31n eta apirilaren 7an** 0-3 urteko haurrentzat Musika Eskolan. Izen-ematea otsailaren 13tik 28ra 948 012012ra deituta.

## Antzerkiak

IRURITA

**'Francoren bilobari gutuna' helduentzako antzerkia**

**Otsailaren 19an** 19:00etan Gizarte Bilgunean.

## Zinema

DONEZTEBE

**'Kubo'**

**Otsailaren 12an** 16:30ean Zineman.

**'Zikoinak'**

**Otsailaren 19an** 16:30ean Zineman.

**'Peter y el dragon'**

**Otsailaren 26an** 16:30ean Zineman.

## Dantzak

ELIZONDO

**Bailableak**

**Otsailaren 12an** Elizondoko Plazan, 12:45ean.

## Inauteriak

BAZTAN

**Gizakunde**

**Otsailaren 11n.**

BERA

**Otsailaren 18an, 22an, 23an, 26an eta 27an**.

SARA

**Otsailaren 25ean eta 26an**.

ARANTZA

**Otsailaren 9tik 11ra.**

IGANTZI

**Otsailaren 17an eta 18an.**

## PROPOSAMENA

NAFARROA

**Parte hartzerik handienarekin 2017ko Bertsolari Txapelketa**

Guztira 35 bertsolarik eman dute izena 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan, inoiz baino gehiagok. Otsailaren 18tik apirilaren 8ra bitarte bortz final-laurden jokatuko dira: otsailaren 18an Tafallan eta 19an Auritzen eta bertzeak bertze, **martxoaren 4an Iruritan**. Gero, hiru finalaurreko jokatuko dira, tartean, **martxoaren 18an Beran.** Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko da finala, apirilaren 8an.



ETXALAR
**Otsailaren 23an eta 26tik 28ra.**

URDAZUBI
**Otsailaren 24an eta 26tik 28ra.**

ELIZONDO
**Otsailaren 24tik 25era.**

BERA
**Otsailaren 18an, 22an eta 23an eta 26an eta 27an.**

LESAKA
**Otsailaren 22an eta 23an eta 25etik 27ra.**

DONEZTEBE
**Otsailaren 23tik 25era.**

GOIZUETA
**Otsailaren 25etik 28ra eta martxoaren 4an.**

EZKURRA
**Martxoaren 4an.**

## Bertsoak

SARA
**Presoen aldeko bertso afaria**
**Otsailaren 17an** Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariekin, Xokobia etxean. 20 eurotan.

NAFARROA
**Nafarroako Bertsolari Txapelketako final-laurdenak**
**Otsailaren 18an** Tafallako Kulturgunean.
**Otsailaren 19an** Auritzeko Kultur Etxean.
**Otsailaren 26an** Lakuntzako Kultur Etxean.
**Martxoaren 4an** Iruritako Gizarte Bilgunean.

## Kontzertuak

ERRATZU
**Patxuko Niceren emanaldia**
**Otsailaren 17an** ZubiPuntan 23:00etan.

## Nire aukera



**Alaitz ESKUDERO BERGARA**
Goizuetako gaztea

### *«Goizuetako Zahagi dantza ekitaldi alaia, bizia eta ustekabez betea da»*

Goizuetako 31 urteko neska gaztea da Alaitz «Heziketa Bereziko irakaslea naiz eta Aresoko eskolan ari naiz lanean». Beti saltsaren batean sartuta egoten dela ere aitortu digu «orain Kultur Taldea, Goizutrail, Gure Esku Dago… egia esan gustora aritzen naiz herrigintzan». Argazkilaritza du afizio eta orain nahiko utzia duen arren «mendira joan eta orduak pasa ditzaket detaile ttikiei argazkiak ateratzen». Badu herrian toki kuttuna ere «Lizaotza ingurua. Bertako kaxkotik Goizueta herria, nire baserria…eta baita itsasoa ere ikusten dira. Ahal dudan guztietan joaten naiz bertara eguzkia sartzen ikustera». Asteburua ailegatzen denean badu hutsik egiten ez duen plana «lagunekin Euskal Herriko edozein txokotara joan, kontzerturen bat ikusi eta parranda eder bat botatzea». Herrian bertan, inauterietan izango du laister ongi pasatzeko aukera «urteko egunik polittenetakoak dira». Igandeko afariaren ondoren, astelehenean baserriz-baserri ibiltzen da puska biltzen «oso momentu politak sortzen dira mozorroen artean, baserritarrekin... urteroko bromak, kantuak, istorioak». Astelehenean herrian ume zein gurasoak mozorrotzeak «herria asko alaitzen du, baina dudarik gabe, astearte arratsaldeko Zahagi dantza da Goizuetako inauterien bereizgarria». Astearte goizean herriko eskean ateratzen dira «gogor xamarra izaten bada ere, arratsaldean Zahagiaren joarea lehenbiziko aldiz aditzeak sortzen duen emozio horrek min guztiak kentzen ditu». Astearte iluntzean kuadrillarekin mozorrotzen dira «eta giro politta sortzen da herrian». Beraiek «egunerokotasuneko gaiaren batekin lotura duten mozorroak» aukeratzen dituzte gehienetan «ez dira landuegiak baina beti ikutu barregarria ematen diogu». Adibidez «herrian turismo plana puri-purian zegoen urtean autobus turistiko bat egin genuen, turistaz mozorrotu eta *ruta-tabernitikoa* ere prestatu genuen…». Kontuen egunarekin bukatuko dira inauteriak «mozorroek diru kontuak egitearen aitzakian bazkaria izaten dugu, txaranga etortzen da... inauteriei bukaera emateko modu bikaina».

> «Herria hobetu ezagutu, gehiago maitatu eta bizirik mantentzeko tresna da herrigintza eta hor aritzeak asko betetzen nau».

GOIZUETA
**Kontzertuak Gaztetxean**
**Martxoaren 4an** Etsaiakeroak taldeak *Naufragoak* diska aurkeztuko du eta ondotik Space Jam Session.

## Ospakizunak

GOIZUETA
**Goizuetarrok ere hemen gaude festa**
**Otsailaren 11n** 17:00etan ikastolako atarian mural margoketa umeentzat, eskulanak, txokolatada, dantzaldia, argazki murala, sinadura bilketa eta herri afaria.

ARANTZA
**Arkupeak-eko herriko bazkideen besta**
**Otsailaren 19an.**

## Azokak

SARA
**Inguruko ekoizleen azoka**
**Larunbatero** 08:00etatik 13:00etara frontoian.

## Mendi ateraldiak

BAZTAN
**Mendigoizaleen irteerak**
**Otsailaren 12an** Doneztebetik Bostorratzera, 07:00etan abiatuta.
**Otsailaren 19an** Elizondotik Iraizozera, 06:00etan abiatuta.

ZUGARRAMURDI
**Atxuria Mendi Taldearen irteera**
**Otsailaren 26an** Sunbilla-Bertiz-Doneztebe, 08:00etan abiatuta.

LEITZA
**Mendibil Mendi Taldearen irteera**
**Otsailean** eskiatzeko asteburua.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu:
**erran.eus** (agenda)

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO**. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

**SUNBILLA**. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

**LESAKA**. 90 m²ko pisua salgai herrigunean, Bittiria karrikan. Zaharberritzeko. 4. pisuan. Igogailuarekin.110.000 euro. ☎636 827980.

**ARIZKUN**. 77 m²ko pisua salgai. 30m²ko trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko prest. 90.000 euro. ☎619 474935 / *enrifaya@gmail.com* (Enrike).

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

**BERA**. Ugalzubia kaleko 2. zenbakian, 79 m²ko pisua salgai: sukalde hornitua-jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza. 195.000 euro negoziatzeko. ☎607 437189.



**BERA**. Ibaialde auzoan 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela eta sukaldearekin. PVC leihoak, berogailua eta igogailua. Fatxada eta teilatu berrituak. Bizitzera sartzeko prest. 138.000 euro negoziagarriak. ☎699 431871.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**IRUÑEA**. Pisua errentan eman nahi da, unibertsitatetik 5 minutura oinez. Bizitzera sartzeko prest. Interesatuak deitu zenbaki honetara. ☎618 598 118.

**LEITZA**. Elgoien 59an, 60m²ko pisua salgai. Igogailua, trastelekua, garajeko marra, 2 logela, komuna, egongela-sukaldea. Prezioa: 108.500 euro. ☎650 623189.

**BERA**. Caro Baroja karrikan, pisua errentan emateko. ☎948 630397 / 680 781648.

**ELIZONDO**. Pisu batean logela errentan emateko. ☎631 341849.

**LESAKA**. Pisua errentan emateko. Sukalde elektrikoa, beheko sua, ganbara eta behean biltegia. ☎661 262531.

**ORONOZ-MUGAIRI**. Pisu berria mobleztatua errentan emateko. Igogailua, berogailua, trastelekua, sukalde-egongela, komuna eta logela bat. 350euro. ☎663 312557.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**ELIZONDO**. Txokoto auzoan lokala salgai, 60.000 eurotan. ☎948 581 499 / 699 008724.



## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan emateko

**BERA**. Illekueta auzoan garaje itxia errentan emateko. ☎646 280396.

## LURRAK/ORUBEAK
### salgai

**IGANTZI**. 19.000 m²ko lurzatia salgai, borda batekin eta herritik hurbil. ☎650 831395 / 662 386899.

**ITUREN.** 331 m²ko lur zati bat salgai. Lasaga auzoan. Interesatuak deitu inongo konpromisorik gabe. ☎678 855056.

## LANA
### eskaintzak

**On-line lanean aritzeko** zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

35 urteko saratar **elbarritu batentzako laguntzaile bat behar** da. Asteburuetan aritzeko egun eta gau bat. Dinamikoa, indartsua eta esperientzia pixkat daukana. (00 33) 610 752171 / *patxi.dutournier@gmail.com*.

**ZUGARRAMURDI**. Altzatenea jatetxean zerbitzaria behar da asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez dakiena eta esperientzia pixka batekin. ☎948 599187.

**ARIZKUN**. Zurgindegian langilea behar dute egun osoz aritzeko. Zurgintza ezagutza edota esperientzia izatea baloratuko da. ☎699 953257.

**IRURITA**. Soldeatzen dakien langilea behar da eta DBH titulua duena edo PIC soldadura. ☎630 184847.

**LESAKA.** Kafetegi batean zerbitzaria behar da, asteburuetan 09:00-etatik 13:00etara eta langileen oporraldiak betetzeko. ☎620 700964.

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 61 €

**Zerri gizena**
1,132 € kiloa.

**Zerramak:**
0,710 € Kg/bizirik.



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| | |
|---|---|
| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,19 |
| **1.koa** | 3,96 |
| **2.koa** | 3,78 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,27 |
| **1.koa** | 4,00 |
| **2.koa** | 3,83 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,14/3,24
Zaldi-behorrak: 1,87/2,07

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 6,20/7,20
8-10 kilokoak: 5,30/5,70

**Biltegi batean zama lanetan aritzeko** kamioi gida-baimena eta informatika ezagutzak dituen langilea behar da. Astelehenetik larunbat eguerdira. Interesatuek bidali curriculuma: *jaldunitz@gmail.com*.

Beola Etxean lanaldi erdian aritzeko **zerbitzariak** behar dira, frantsesez pixka bat jakitenak. Bidali curriculumak: *beolaetxea@gmail.com*.

## LANA
### eskariak

**Emakume arduratsuak** adinekoak zainduko lituzke interna moduan. Lesaka edo inguruko herrietan. ☎642 498891.

**Mutil gaztea eta arduratsua** eskaintzen da orduka adinekoak zaintzeko edota animaliak zaintzeko. ☎652 308756.

**ELIZONDO**. Elizondoko 27 urteko neska batek administrari, sukaldean laguntzaile, etxeak garbitzen, zerbitzari edota adinekoak zaintzen lan eginen luke. Kotxe propioa. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako zertifikatuarekin. Adinekoekin esperientzia. ☎649 901395.

**Neska gazte eta arduratsua** lan bila dabil. Dendari lanetan esperientziarekin, umeak zaintzen, zerbitzari... ☎687 222320.

**42 urteko emakumezkoa** lan bila. Interna bezala aritzeko prest. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎631 631036 (deitu edo whatsappez).

**Haurrak edota adinekoak zaintzeko** lan bila. Adinekoak zaintzen eta haurrak zaintzen esperientziadun neska. Interna moduan edo orduka aritzeko. ☎604 152370.

Beran bizi den **emakume euskalduna** edozein lan bila dabil. Ikasteko prest, nahiz eta produkzio, kajera eta kamarera moduan esperientzia izan. ☎655 720052.

**Esperientzia duen emakumea** interna edo orduka adinekoak edota haurrak zaintzen, garbiketa lanetan... aritzeko lan bila. ☎631 341849.

31 urteko **mutil arduratsua** lan bila. Arlo desberdinetan interesatua: nekazaritzan, abeltzaintzan, margo lanetan edota adinekoak zaintzen... ☎698 285544.

## ZERBITZUAK
### denetarik

**LESAKA.** Etxeko tartak egiten ditut urtebetetze eta jaunartzetarako. ☎642 993776.

## MOTORRAK
### salgai

**Volkswagen California Coach T4** salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajean. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefakzio estatikoa, konbertidorea... ☎630 041480.



## ANIMALIAK
### salgai

**LESAKA.** Bi poni salgai. Biak arrak dira, bat 5 urtekoa eta bestea 5 hilabetekoa. ☎600 403360.



**Betizuak** salgai. ☎655 706073.






## ANIMALIAK
### galdu/aurkituak

**LESAKA**. Zakurra agertu da abenduaren 24an, Olentzero egunean, Frain auzoan. ☎607 446925.



**ALKAIAGA**. Katua desagertu zaigu urtarrilaren 2an. Norbaitek ikusten badu, dei dezala, faborez. ☎655 722477.



**ITUREN**. 11 urteko Border Collie emea, ile zuria eta ertaina galdu zen Urtezahar gauean lurraldean (Amezti aldera). Aurkituz gero, deitu faborez. ☎650 825377.



## DENETARIK
### salerosketak

**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.




BERAKO UDALA

**OSOKO BILKURAREN AKORDIOA**
–HIRIGINTZA–

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2017ko urtarrilaren 19koa:

Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua, bizitegi lurzoruan zehaztutako erabilerak (Hirigintza arautegiaren 18. art) arautzekoa, hasiera batez onestea.

Espediente hau jendaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik (2017ko urtarrilaren 31n argitaratua, 21. NAO).

Bera, 2017.01.30
ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre




**Baserri baten harria** salgai. Hori kolorekoa da. ☎617 396729.



**Logela osoa** salgai: ohea, bi mesanotxeak,



armairua eta tokadorea. Egoera hagitz onean (3 urtez erabilia). Haritzez egindakoak. Altzariak banaka saltzeko prest. Prezio interesgarria. ☎630 693173 (19:00etatik aitzinera).

## DENETARIK
### galdu/aurkituak

Abenduaren 24an, Olentzero egunean, Berako plazan eskuz egindako **tokila beltz** bat galdu genuen. Faborez norbaitek aurkitu baldin badu deitu ☎635 701610.

# PLAZAN BAZAN

Kaixo lagun!! Gu Maripurtzil eta Pelloziri gara!
Jolastu gurekin!! Primeran pasako duzue!!

## INAUTERIAK



## BAKOITZARI BEREA

Zuhaitz-enbor hauek ez dute itzal ona ematen.
Zein da enbor bakoitzari dagokion itzal aproposa?




Egilea: **Garbine Ubeda (Aiurri)**




1. Zenbat lore daude?
○2 ○3 ○4 ○5 ○6

2. Jende guztiaren artean, bi biki pare daude. Ze mozorro dute jantzita?

3. Aurkitu elementu hauek:



4. Aurkitu beste hauek ere: elur panpina, hontza, pirata, bandera, kapelu mexikarra



5. Irudiko cowboy-aren eta honen artean 8 ezberdintasun daude. Ikusten al dituzu?




## OSATU

Marra baten bidez, lotu elur-panpin bakoitzari falta zaion elementua.

Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

## INTERNETEN ERE BAI !

plazanbazan.eus

KIOSKOA
JOLAS-PARKEA
AZOKA
UDALETXEA
IKUSKIZUNAK



IPUINAK KOMIKIAK MARRAZKIAK

PUBLIZITATEA

moztu piezak eta osatu puzzlea
www.kulturkari.com orrialdean agertzen da irudi hau



KULTURKARI
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
Koskontako bidea 7, 31760 LESAKA
Tel.: 948 635 458
www.kulturkari.com

# urtebetetzeak

Argazki soila: **5€**; bikoitza: **10€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Lesakako **Hegoi Zelaieta Urrizak** urtarrilaren 16an 3 urte bete zituen. Zorionak morroxko! Attona, amona, izeba eta osabaren partetik.



**Oihan Lujanbio Sanchezek** 11 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zubietako amatxi **Patrixik** urteak beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak! Eta muxu haundi-haundi bat Urdazubitik Pabloren partetik.



**Janire Lekuona Huiciri**: zorionak maitia, hameka muxu aita, ama Ibai eta familia guztiaren partetik. Ongi pasa zure eguna, printzesa.



**Kattalinek** 5 urte bete ditu otsailaren 4an. Zorionak urte askoz, printzesa! Bost muxu potolo attatto, amatxo eta Joanesen partetik.



Lesakako **Miren Yanci Charlesek** 4 urte beteko ditu otsailaren 17an. Aunitz urtez atta, ama, amatxi, Iruñeko eta Nigeriako familiaren partetik. Muxu, muxu, muxu!



Otsailaren 6an **Ekaik**, gure katalan euskaldunak, hiru urte bete ditu. Zorionak eta txokolatezko hiru muxu goxo Aresotik Sant Climenteraino!



Arantzako **Hegoi Iparragirre Zelaietak** urte bat beteko du otsailaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Goizuetako **Nahia** eta **Laiene Zubiri Loyartek** urte bat beteko dute otsailaren 14an. Zorionak eta muxu pila bat familia guztiaren partetik.



Oizko **Adriana Eleta Goñik** urte bat beteko du otsailaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Aunitz urtez printzesa!







IKASTOLA EREDUA
HEZKUNTZA ERALDATZEN
IKASTOLA EREDUA ikastolenelkartea IKASTOLA EREDUA
WWW.IKASTOLA.EUS
AURREMATRIKULAZIO GARAIA:
OTSAILAREN 13tik 17ra
LABIAGA
Ikastola Bera
Altzate,12 Eztegara,32
94863.0172 948631558
31780 BERA-NAFARROA WhatsApp 608677446
bera@ikastola.eus www.labiagaikastola.eus
HEZKUNTZA KOOPERATIBA EUSKALDUNA
Arretxea, 13
31770 Lesaka
Tel 948 637 308
tantirumairu@ikastola.eus
www.tantirumairuikastola.com
TANTIRUMAIRU
IKASTOLA - LESAKA
ikastolenelkartea

Bortzirietako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)
Toki Ona BHI (Bera)
Landagain IP (Etxalar)
Arantza IP
Irain IP (Lesaka)
Igantzi IP

**AURREMATRIKULAZIO EPEA:**

**Haur eta Lehen Hezkuntza:**
otsailaren 13tik 17ra

**DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa:**
datak zehaztear daude



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104
Arantzako Herri Eskola-Google sites



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 948 625 000
iestokiona.educacion.navarra.es/



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



LESAKA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
irain.educacion.navarra.es/web

**Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz | Doan | Integratzailea**

**Jantoki eta garraio zerbitzuarekin | Teknologi berriez baliatuta**

**Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan | DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan**